



ARGIA

TAPIA LEGEA

Udalerriei proiektuak inposatzeko erreminta

26-33. orriak



**Itxura ezitu
arren, beti
eskuin muturra**

12 | FRONTE NAZIONALA



**Euskal Errepublika
aldarrikatzea eskatu
zuten udalek 1931n**

34 | HISTORIA



**Punkaren
aurrekariak duela
100 urteko pinturan**

44 | ARTEA

AIXITA II. BERTSO SARIKETA 2022

Maiatzak 14, larunbata, 18:30ean
PIKUXAR EUSKAL TXOKOA - IRURTZUN

KANPORAKETA SAIOA
Atsedena
BURUZ-BURUZKOA



AISSA INTXAUSTI



MAIALEN AKIZU



ANE LABAKA



SAATS KARASATORRE



IKER ALTUNA



AITOR IRASTORTZA

Sarrera doan

Ondoren, nahi duenarentzako afaria:
15€. Apuntatzeko: aixitabertsosariketa@gmail.com

PIKUXAR
EUSKAL TXOKOA



BABESLEAK



Bi Ahizpak s.a.

Albaitaritza



Mank
sakana

Nafarroako
Gobernua

LABORAL
KUTXA

HEDABIDE LAGUNTZAILEAK

berria

ARGIA

guaixe
fundazioa

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
SHU OTERO

Iritziak

- 21 | IKER IRAOLA
- 22 | BEA SALABERRI
- 23 | JOSE IGNAZIO ANSORENA
- 23 | EDU ZELAIETA
- 24 | MATI ITURRALDE

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 48 | ARGI-KONTRA: AINARA SÁNCHEZ
- 58 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

12 | BIBIANA CANDIA
galiziarra elkarriketatu du Reyes Ilintxetak. Eleberrian kontatu du 1853an nola eraman zituzten Galiziako gazteak Kubako azukre plantazioetara engainatuta, esklabu.

Elkarriketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Deabruaren irudia eztitu arren, proiektu politiko berdinarekin segitzen du Le Pen klanak

Jenofa Berhokoirigoin

26 | POLITIKA | TAPIA LEGEA

Jaurklaritzak botere gehiago, udalek gutxiago

Zigor Olabarria

34 | HISTORIA

1931ko Euskal Errepublika: autodeterminazio eskubidearen katea

Urko Apaolaza

38 | EUSKARA

Beste urrats bat emateko zapatat lotzeko unea

Iñaut Gonzalez de Matauko

44 | KULTURA | PUNK ARRASTOAK PINTURAN

Etorkizuneko apurketak iraganean

Iñigo Basaguren-Iriarte

Jabetza
Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea

Lehendakaria
Onintza Irureta

Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefona

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametza

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Guda humanitarioen lorpenak

Bederatzi hilabete pasa dira talibanez garaipena lortu zutenetik, 20 urteko okupazioaren ondoren. Koranaren eta kalashnikoven indarrez bakarrik ezin da estaturik kontrolpean mantendu, eta Afganistango Emirerri Islamikoa zabortegei bihurtu dute. 39 milioi pertsona bizi da han, hiru milioitik gora lagunek opioarekiko mendekotasuna dute, bi heren 25 urtetik beherakoak dira eta gehiengoak egunero beste animalia batzuekin lehian aritzen da zabor artean jateko zerbait bilatu nahian. AEBek eta euren mariatxiek asmatutako gerra fronteetako bat zen. Mendebaldeko "justizia eta demokrazia" herrialdera eraman ostean, ahaztuetakoa.

EBRAHIM NOROOZI / AP AXIER LOPEZ





Zabalgarbik 17 milioi lortu ditu laguntzetan, hondakinak ez balorizatu arren

 ZERO ZABOR

Iraunkortasun ekologikoa, gizarte eta ingurumen-krisiak eta klima aldaketak Euskal Herrian dauzkan ezaugarriak ikertzen dituen Ekopol elkarteak analizatu du Bizkaiko Zabalgarbi erraustegiak 2020an egindako jardunaren emaitza. Ondorio larriena zera da: Europako agintaritzak hondakinen errausteta energiazko balorizazio izendatzeko baldintzak ez dituela betetzen Bilboko erraustegiak eta hala ere dirulaguntza itzelak jaso dituela bere osasun ekonomikoa hobetzeko. Horrela, alde batetik, urte horretan 14 milioi euroko dirulaguntza jaso du argindarra sortzeagatik, nahiz eta elektrizitate horren %70a ez sortua izan zaborren erraustetatik baizik eta gas naturala erretzetik; eta bestetik, CO₂aren isurietan oso emaitza txarrak eduki arren horien ordainetik Espainiak salbuetsi izanagatik beste 3 milioi euro gehiago sakeleratu dituela Zabalgarbik.

2020an Zabalgarbik 230 mila tona hiri-hondakin erraustu zituen, horien ia %70 bereizi gabe bildu eta erraustuz, inolako aurretratatamendurik egin gabe (zuzenean edukiontzitik labera). Gauza da, 2020an martxoaren 27tik uztailearen 20ra bitartean, 116 egunez, Zabalgarbik ez zuela elektrizitaterik sortu, baina denbora horretan hondakinak errausten jarraitu zuela. Errausteta hori, beraz, inolako

balioztatze energetikorik egin gabe egin zuen, hau da 60-80.000 tona hiri-hondakin, gehienak bereizketarik gabe bildu eta aurretratatamendurik gabe erraustuz.

Ekopolen ikerlanak ematen du datu bat edozein demokrazia liberaletan berehala eragin beharko lukeena bai gobernuaren eta bai epaileen ikerketa zorrotza

Alabaina, 2020an horrek ez dio eragoztzi Zabalgarbiri sortzen duen elektrizitate guztiaren truke primak jasotzen jarraitzea, iturri berriztagarrietatik, ko-genezarrietatik eta hondakinetatik ekoiztutako elektrizitatearen ordainketa-sistemari esker. Zabalgarbik gas naturala erretzen duen ziklo konbinatu batean balorizatzen ditu hondakinak. Beraz, 14 milioi euro inguru kobratu ahal izan ditu 2020an, ekoiztutako elektrizitatearen truke, nahiz eta elektrizitate horren %70 edo gehiagoren jatorria gas naturalaren erreketan egon. Ekopolen ikerlanaren arabera, gai-

nera, Zabalgarbik efizientzia energetiko oso txarra eskaintzen du (%40-43) ziklo konbinatuz funtzionatzen duten beste instalazioen aldean, baina hala eta ere lortu du Espainiako Estatuko eguneko merkatuan elektrizitatearen urteko batez besteko kasazio-prezioaren parekoa kobratzea.

Zabalgarbiren beste diru-iturri oparo bat dira sortutako CO₂ tona bakoitzeko lortu ditzakeen 60 euro baino gehiagoko hobariak. Esan denez, Zabalgarbi funtsean ziklo konbinatu bat izan arren, hondakinak baloritzatzeko kategorian sartu dutenez ez du harrapatzen CO₂ Emisio Eskubideen Salerosketen Erregimenak ere; ondorioz, 2020an ez ditu berotegi efektuko gasen isurketa-eskubideak erosi beharko, 3 milioi euro baino gehiagoko kostua dutenak, gas naturala erretzen duen ziklo konbinatua izateagatik ordaindu beharko lituzkeenak.

Ororen buru, Zabalgarbi erraustegiak, efizientzia energetiko apaleko ziklo konbinatu bat izan arren, 2020ko jardueragatik eskuratu ahal izan ditu prima handiak, batetik 14 milioi euro argindarra 'hondakinak baloritzatzeko aitzakian' ekoizteagatik -funtsean gas naturala erreta ekoiztu arren-, eta bestetik 3 milioi euro gehiago CO₂ isuriengatik ordainketen salbuespen harrigarri bat oparitzen diotelako agintariek. Ekopol elkartearen kalkuluetan, Zabalgarbi erraustegia da EAEn CO₂ gehien isurtzen duten konpainietakoa: urtean 200.000 tona CO₂.

Ekopolen ikerlanak ematen du datu bat edozein demokrazia liberaletan -hots, aginte banaketa dagoen batean- berehala eragin beharko lukeena bai gobernuaren eta bai epaileen ikerketa zorrotza. "Zabalgarbik -dio Ekopolek- 2020an balorizatu barik utzi baldin baditu milaka tona -116 egunez elektrizitaterik sortu gabe erre zituen milaka tona zabor- horren arrazoiak ez da ez teknikoak eta ez ingurumenezkoak izan: argindarren prezioen egun haietan ez zuten ematen ziklo konbinatua martxan edukitzeko erre beharreko gas naturalaren gastuak ordaintzeko adina". ●



HUMANITATEAREN UNE GORENAK

EZ HANKA EZ BURU

Afera politiko bat



ARITZ GALARRAGA

Ez da zehazki Proust galdetegia, baina 26 idazle frantses garaikideri pausatu die galde sorta bera Alexandre Gefen ikerlariak, eta bildu ditu erantzunak *La littérature est une affaire politique* liburuan; tartean Annie Ernaux, Mathias Énard, Nicolas Mathieu, Alice Zeniter bezalako izenak, gertuago Marie Darrieussecq –zeinari irakur dakiokegun oso euskaldun eta oso frantses sentitzen dela aldi berean; edo beste hau: “ez nuke deus izango Euskal Herri independente, demokratiko, laiko, feminista baten kontra”. Izenburuak ondo dioen bezala, literaturaren eta politikaren arteko harremanaz dihardute galde-erantzunek, konpromiso deiturikoaz, literatura despolitizatu ote den, edo birpolitizatu, zein diren zera politikodun obra literario handiak. Literatura onak izan behar du arduratsu, engaiatu, politikoa?

Noski, testigantzak dira askotarikoak, tarteka aurkakoak, baina badabil guztien gainetik urrin bat: politika politikoa baino, alegia, politikokeria baino, gaur-gaurko eztabaidak interesatzen zaizkie idazleei, ekologia, feminismoa, lan mundua. Ezezagun dena ezagutaraztea, idazlearen zereginetako bat izanik, dominazioaren angelu itsuak agertu, hitza eman ahotsik ez dutenei, gizajendearen polifonia entzunarazi nahi dute. Gai bat eta ikuspuntu bat aukeratzea jada engaiatzea da, gauzak beste modu batera ikusaraztea politikoki jotatzea. Idaztea bera da engaiamendu bat, beraz, literaturak engaiatzen zaitu, eta literaturak eduki dezake eragin politiko bat munduagan: idazlea politikoki baliagarria da mundua ulertzeko, esan nahi baita, mundua hobetzeko, berritzen du kontakizun kolektibo sozial eta historikoa, eta zentzu politiko berri bat ematen dio munduari. Ahots desberdin eta bereziak entzutera emanez, literaturak areagotzen du pluralismoa eta eztabaida demokratikoa. Liburu hau irakurri ondorenean, eta libertimendu hutsera lerratu uste den honetan: literatura, besteren gainetik, afera politiko bat da. ●

HERRI URRATS!



AOR

PAI

Ingeleseztik Ikasteko Programako (PAI) 350 irakasleren lanpostua egonkortzeko aurreproiektu legea onartu dute PSNk eta Navarra Sumak. Akordioak tira-birak areagotu ditu Nafarroako Gobernuak bazkideen artean. Legearen aurka maiatzaren 7an manifestazioa deitu du hainbat sindikatu eta eragilek.

Mastodonera

Elon Musk Twitter erosi izanak zalaparta handia eragin du. Hartu ditzakeen erabakien beldur, Twitterreko erabiltzaile askok Mastodoneko larre gozoagoetara jauzi egitea erabaki du. Musk duela hilabete Twitterren zati bat erosi zuela iragarri zuenetik, 150.000 erabiltzaile aktibo inguru irabazi ditu Mastodon sareak.

Elhuyar

50 urte bete dituen Elhuyarren sortzaileei eman diete CAF-Elhuyar sarien merezimendu saria. Kultura zientifikoa sustatzen duten sarien beste garaileak Ane Portillo Blanco, Amair Esnaola Illarreta, Jon Villapun Arbide, Maider Ibáñez, Jon Goikouria, Fatima Villa González eta Arantzazu Luzarraga Iturrioz izan dira.

Argia itzali



ULA IRURETAGOIENA

Neguko hilabete hotzek elektrizitate eta gasaren fakturaren gordintzea ekarri dute, etxe askotan hirukoizterira iritsi arte –larritasunaren emotikonoa erantsi–. Igoera horrek etxeetako zein eraikin publikoetako kontabilitatean zulo bat ireki du. Eta ez omen da txantxa, Madrileko komunitateak elektrizitate gastua murrizteko hartutako neurrien artean, metroko tren bidaien %10a murriztea proposatu duenean –izuaeren emotikonoa erantsi–.

Euskal Herriko Unibertsitatean, fakultateko zuzendaritzatik irakasleoi jakinazai zaigu energia kontsumoa txikitzeko hartu diren neurriak, eta indibidualki hartu beharreko zenbait aurrezpen-gomendio. Eraikinean berogailuaren ordutegia egokitu da ikasgelarik hotzenak lehenetsiz eta hegoaldera ematen duten geletan pizte-ordutegia murriztuz. Irakasleoi arreta deitu zaigu esanez argi naturala dagoen espazioetan argi artifizialik ez erabiltzeko, ordenagailu eta gailuak hibernatzen jartzeko erabiltzen ez direnean eta bulego eta komunetako argia itzaltzeko behin gelatik ateratakoan. Energia-eraginkortasun neurriak baino, energia xahutzeko ohiturari alerata jarri zaigu, laneko espazioetan etxeko logika bera aplikatzeko eskatuz.

Gogoan dut Arizonako arkitekto bat etxean jaso nuenekoa. Eraikin publikoetan energia aurrezteko teknika arkitektoniko eta teknologikoak bilatzen lan egiten zuen. Europara opor-bidaia egin eta maletan bere laneko obsesioa ekarri zuen. Askok interesatu zen gure eraikin askoren barne-patioekin, portal komunitarioetako sentsoreekin, kaleko gaueko argiztapenarekin. Solasaldi asko izan genituen arkitekturak energia aurrezteko dituen aukerez. Bidaiaren eta hizketaldi luzeen ondorioz, deskantsuan utzi nuen etxean, paseo bat emateko aprobeztatuz. Paseotik bueltan, shock egoeran gelditu nintzen etxeko argi guztiak pizturik zirela ikustean, nire laguna loaldi sakonean zegoen bitartean. Iru-di haren inpaktuak agertu zidan argia itzaltzearen keinuaren politikaz. ●



LAB SINDIKATUA

Prekarietatea, pobretzea... Eta alternatibak?

URKO APAOLAZA AVILA

Milaka lagun bildu dituzte igande honetan kalean sindikatu eta erakundeek, Maiatzaren Lehenarekin batera. Bi urteko pandemiaren ondoren, termometro bat ere bada hori, langile borroka nola dagoen neurtzeko. Prekarietatearen kontra, lan banaketa justuaren alde edo askatasuna ahotan harturik irten dira karriketara. Pankarten eta leloen atzean, baina, bistan da inflazio tasa altuak eta prezioen gorakadak markatu duela eguna. Soldatak KPIren arabera igo eta langileek erosahalmena ez galtzea da sindikatuak mahai gainean duten auzi nagusietakoa. Onartezintzat jo dute enpresa handiek etekinak dituzten bitartean, patronaletik eta erakunde publikoetatik soldaten igoera oinarritzko prezioa baino apalagoa izatea defendatzea, lehen pandemia eta orain Ukraina “aitzakia” bezala jarriaz.

Langileak “pobretze fase batean” sartu dituztela dio Mixel Lakuntza ELAko idazkari nagusiak, eta azken hamar urteetan erosahalmenean %10 galdu dutela. Erreforma fiskal sakonagoa izan liteke irtenbidea, Europar Batasunak multinazionalak gehiago zergapetzeko erakutsi asmoa eskas geratuko dela agerikoa baita, zerga-ihesari ateak parez pare zabaltzen zaizkion bitartean.

Beste aukera bat “errenten itun” bat izan zitekeen, patronalarekin adostea soldata igoera. Baina igandeko hitzartzeetan sindikatu guztiak kontra azaldu dira: “Langileok ere gehiago pobretzeko” dela esan du LABeko Garbiñe Aranburuk. UGTk eta CCOO, berriz, soldatak urtero eguneratzeko klausulak exijitu dituzte, eta horretan “oso beligerante” izango direla dio Loli García CCOO-Euskadiko buruak.

Herri ugaritan manifestazioak antolatu zituzten Kontseilu Sozialisten ustez, langileria krisi ekonomikoaren “albo-kalteak” jasaten ari da: “Oinarritzotzat geneuzkan askatasunak ezabatzen ari dira, eskubide ezak ezaugarritzen du lan mundua”. Eta “ezker parlamentarioari” egotzi diote “ezer ganorazkorik” ez egitea horren aurrean.

Orduan? Zer egin? Kapitalismoak etengabe dakarren desjabetzearen aurrean –erregaien garestitzeak beste behin agerian utzi duena ikuspegi ekologiko batek–, greba eta mobilizazioa dira tresna eraginkor eta ukaezinena. Baina orriotan joan den astean Ainhoa Etxaidek zioen bezala, hazkunderik gabeko mundurako prestatzen ere hasi behar dugu, eta kontsumo eredu nahiz ongizate jasagarri baterantz kolektiboki antolatzea da erronka, langile-klasea ez dadin berriz izan hau guztia ordainduko duena. ●

%45,5

EAEn, haur eta nerabeen kontrako indarkeria mota nagusia familia barrukoa da (%45,5), eta bai bikotekideen aldetik neskek jasaten duten indarkeriak, bai sexu-indarkeria kasuek nabarmen egin dute gora, Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera.

%90

da oraindik ezkutuan dauden lan gaixotasunak, sindikatuek salatu dutenez. Lanetik etxera bueltan istripuz hildako langilea, laneko gaixotasun psiko-sozialak, produktu toxikoengatik lanean minbizia garatzen dutenak...

%20

hazi da Errigoraren kanpainaren eskari kopurua, iazko datuekiko. "Inoizko uztarik emankorrena" izan dela nabarmendu dute. 10.000 despensta beteko dituzte Nafar hegoalde eta erdialdeko produktuekin.

"Zer egin behar du estatuak, norbaitek konstituzioa urratzen badu, independentzia aldarrikatu, kaleak itxi edo orain Ukraina inbaditzen duen Errusiako buruzagiekin harremanak dituzten politikariekin?"

MARGARITA ROBLES

Pegasus, CNIren espioitza kasuaz galdetuta, Espainiako Defentsa ministroak iradoki du zilegi dela espioitza Espainiako Estatuak apurtu nahi dutenekin. **2022-04-27**



"Euskal kulturak bizi behar du eta gazteei da biziaraztea. Kultura egitea politika egitea da"



MAIDER LURO

Bi urteko etenaldiaren ostean, joan den larunbatean ospatu zuten Nafarroaren Eguna, Baigorri. Eguna antolatzeaz arduratzen den Basaizea elkarteko arduraduna da Maider Luro. **BERRIA (2022-04-30)**

"Alemaniako gobernuak barkamena eskatu zuen bezala, Espainiakoak ere eskatu beharko luke"



EMILIO APERRIBAI

Aperribai 8 hilabeteko haurra zen Gernika bonbardatu zutenean. Amak besotan Lumoko baserri batera eramanez, bizirik ateratzea lortu zuen. Berak eta alaba Monikak gutun bat idatzi zioten iaz Espainiako Gobernuari eta Urkullu lehendakariaren bidez helarazi. Bonbardaketagatik barmakena eska dezala galdegin diote. Ez dute erantzunik jaso.

RADIO EUSKADI (2022-04-26)

TEKNOLOGIA

Teknologia ulertzea



DIANA FRANCO

Askotan teknologia produktu bezala ulertzen dugu, baina teknologia errezeta ideiatik gertuago dago. Gure eskuetan azken belaunaldiko mugikor bat izanda, azken teknologia gure eskuetan dugula uste dugu. Ez da horrela. Teknologia ez da objektu bat, ezagutza da, gizakion munduan eragitera bideraturiko ezagutza.

Teknologia geureganatzeko, ezagutza geureganatzeko –edo gutxienez gauzak hobeto ulertzeko–, esperientzia da nire ustez biderik onena. Esperientzia horrek, gainera, zentzua izan behar du, ulermena eta ezagutza loratu daitezten. Noizbait jostailu elektroniko bat desmuntatu duzue? Barruan zituen bozgorailua, kableak, teklak, motorrak ikusi dituzue? Esperientzia hori izan baduzue, berriro jostailu elektroniko bat ikusi duzuenean, ziurrenik, desmuntatu barik zelan funtzionatzeko duen errazago susmatu izan duzue. Programazio kodeekin antzeko zerbait gertatzen da, hizkuntzekin ere, gizakion arteko harremanekin berdin... Esperientziak laguntzen digu etorriko dena hobeto aurreikusten.

Software libreari lotuta lan asko egin da zentzu horretan. Beharbada, software librearen produktu edo objektutik baino gertuago dagoelako errezetatik, esperientziatik. Tresna ideiatik gertuago. Topaketak, jaialdiak, trukeak... Software librearen zabaltzen da pertsonen arteko ezagutza truketik. Eta praktika oso hezigarria da. Baina zelan sortu horrelako esperientzia bat zure komunitate gertuan (herri, ikastetxe, auzoan)? Egun erabiltzen ditugun gailuak horrelako esperientzia baterako prestatuta daude? Noraino eragin dezakegu? Non eta norekin egin dezakegu horrelako esperientzia bat?

Informazio ugari dago, eta beldur barik hasi gaitezke horrelako esperientzia bat sustatzen. Espektatibak zaintzea eta deon artean ikasteko eta hezteko aukerak zabaltzea da kontuan hartu beharrekoa, esperientziak gozatzeko. Topaketa txikiak interesgarriak dira (eskolan, liburutegian, kultur zentroan...). Prozesua ezberdina izango da kasuan kasu, baina teknologiaz eta pertsonen asko ikasiko dugu bidean. ●

NAZIOARTEA



AFP

Go home Gota

AXIER LOPEZ

Sri Lankak, 1948an independentzia lortu zuenetik, krisi ekonomikorik larriena bizi du. 22 milioi lagunek hamabi orduko argindar mozketei eta premiazko produktuen –elikagaiak, erregaia eta sendagaiak– eskasia orokorrari egin behar diete aurre. Urte hasieran inflazioa maximo historikora iritsi zen eta elikagaien prezioak %24 puztu ziren. Sri Lankak, historian lehen aldiz, ordaintzeari utzi behar izan dio kanpo-zorra –2021eko apirilean 35.100 milioi dolar ingurukoa–, eta horietatik 7.000 milioi urte honetan bertan pagatu beharrekoak dira.

Munduko krisi ekonomiko guztietan presente dagoen aktoreak Sri Lankan ere badu eragina: Nazioarteko Diru Funtsa. 1965etik, 16 mai-legu egin dizkio Sri Lankari. Azkena, 2016an, 1.500 milioi dolarrekoa. Eta trukean, betiko errezeta: “Austeritate”. NDFk eskatutako austeritate neurriek inbertsio publikoa murriztu dute, biztanleriaren eguneroko ongizateari kalte eginez. Eta gainera, ekuazio horri bi urteko pandemia gehitu behar zaio, turismoa bezalako sektore hegakor eta arriskutsuaren menpe dagoen herrialdean.

Gobernuak zergak orokorki murriztu zituen, biztanleriaren zati handi bat zuzeneko zergarik gabe utziz. Horrek gobernuaren ospea handitu zuen, batez ere delako klase ertainaren artean, baina zerga murrizketa horiek ez zuten inbertsioa eta garapen ekonomikoa sustatzea lortu. Eta horrela, urtez urte, aurrekontuetako defizita zenbat eta handiagoa izan,

are handiagoa izan da nazioarteko espekulazio merkatuekiko zorpetzea.

Laburbilduz, ekonomia porrot egiteko zorian dago, eta biztanleriaren zati handi batek oso argi dauka nor den erantzule nagusia: presidentea.

Gotabaya Rajapaksa ez du dimititu nahi, 2019an ia zazpi milioi pertsonen babesa jaso zuela etengabe errepikatuz. Rajapaksa eta bere familiak Sri Lankako bizitzaren ia alderdi guztiak kontrolatu dituzte azken ia bi hamarkadetan. Hainbat senidek karguak ditu gobernuan; esanguratsuen lehene ministroa da: Mahinda Rajapaksa, presidentearen anaia. Mahinda ere Sri Lankako presidentea izan zen ia hamarkada batez (2005-2015) eta berak zuzendu zuen 2009ko erasoaldi militarra Tamil Eelamgo Askatasun Tigreen aurka. Eraitza dramatikoak izan zen: 15.000 tamil baino gehiago hil edo desagerrarazi zituzten garai hartan, eta nazioarteko hainbat begiralek gerra krimenak leporatu zituzkion Rajapaksa familiako buruzagiarri.

Go home Gota lelopean, dimisioak eskatzeko mobilizazioak etengabeak izan dira azken asteetan. Ostegunean greba orokor arrakastatsua egin zuten eta igandean, Langileen Nazioarteko Egunaren aurkako protesten barruan, milaka lagun elkartu dira Colombo hiriburuan. Protestaren gune nagusia presidentearen bulegoaren ingurumaria da. Presidenteak etxe horren barruan egon behar izan du herritarren haserrearen zabaldutik, erabat gotortuta, kanpoan kanpatzen ari diren manifestariak inguratuta. ●

Tximeleten oasia

📷 CRISTINA ENEA FUNDAZIOA

DONOSTIA. Tximeleten habitatak suntsitzen eta eraldatzen ari diren garaiotan, haientzako espazioak berreskuratzeko lanean ari da Zerynthia Elkarteak. Cristina Enea Fundazioarekin elkarlanean, oraingoan Ulia Interpretazio Zentroan egin dute tximeleten oasia. Boluntarioei esker egin dute tximeletentzako habitata, eta bertako landare eta lore espezie ezberdinek lagunduko dute tximeletek bizirauteko ingurune egokia izan dezaten.



Bortxaketa

Gizon batek salatu du beste gizon batek bortxatu duela Santurtzin. Joan den larunbat goizaldean gertatu zen eraso, Santurtziko portuko plazan; inguru horretan egin ziren San Jorge jaietako kontzertuak. Aintzane Urkijo alkatearen hitzetan, "Santurtzin ez dugu inoren borondatearen aurkako inolako jokabiderik onartzen".

Ustelkeria

Dimisioa aurkeztu du Fernando Izagirrek, Eusko Jaurlaritzako Larrialdi eta Meteorologia zuzendariak eta Galdakaoko EAJren bozeramaileak. Izagirre DYako zuzendari zela jasotako irregulartasunak salatu ditu egungo DYako zuzendaritzak. Fiskaltzak abiatutako ikerketaren aurrean aurkeztu du dimisioa.

Literatura

212 irakurle batzen dituen 111 Akademiak joan den urteko liburu gogokoenaren saria eman dio Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* (Susa, 2021) lanari. Ekainean egingo dute jendaurreko sari-emate ekitaldia. Itxaro Bordaren *Euri zitalari esker* (Susa, 2021) izan da *Eraikuntzarako materiala*-ren lehiakidea azken txandan.

DEABRUAREN IRUDIA EZTITU ARREN, **PROIEKTU** **POLITIKO BERDINAREKIN** SEGITZEN DU **LE PEN KLANAK**

Azken hogeit urteetan bikoiztu ditu botoak Fronte Nazionalak (2018az geroztik Batasun Nazionala deiturikoak): 5,5 milioi hautesletik 13,2 milioira pasada –Frantziako lehendakaritzarako bigarren itzulian %41,4 egin du–. Elementu anitz kontuan hartu behar dira eskuin muturraren bilakaera ulertzeko. Tartean, eta osagai emankorrena dugu Marine Le Penek alderdiaren itxura eztatzea erabaki izana 2011n, Jean-Marie Le Pen aitari lekukoa hartzerakoan. Diskurtso eta tonu aldaketaren atzealdean dagoenari begiratu diogu.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN


Nire alabak heziak izan dira arrazakeria gogorrean”. Kazetariak, “Omen Hitler telebistan agertzen zenean Osaba Dolfi deitze-ra behartzen zituen [aitak]” eta erantzuna: “Txiste bat zen, baina bai, horrela zen gurean. Ea, ez zituen behartzen... irri egiteko modu bat zen. [Hitlerrekiko] laguntasun eta afekzio keinu bat zen, nik uste [irria]”. Marine Le Penen amaren hitzak dira, Pierrettenak, 1998an plazaraturikoak, Karl Zero kazetariari eta Jean-Marie aitaren heziketaz ari zitzaien. Haurtzarora familia-giro horretan pasaturik, gaztarora ez zuen baliatu bere kabuz hegalegiteko: hemezortzi urterekin sartu zen bere aitak sorturiko Fronte Nazionala (FN) alderdira eta eskuin muturreko ikasle antolakundeetan zebilen, GUD Groupe Union Défense ikasle egi-

tura faxistako militanteak zituela lagun –tartean, luzaz GUDeko buru izandako Frederic Chatillon, 2017an Le Penen kanpaina bideratzeko liberaturikoa–.

Noski, Chatillon ez da gehiago alderdiaren lehen lerroan: hautagaitzari loturiko “deabruaren irudia desagerrarazteko” estrategiari segi, argazkitik kendu ditu faxismoari loturiko kide gogorenak. Prozesua definitzeko Le Pen klanak sorturiko *dédiabolisation* hitza 2016an Larousse hiztegi frantsesean sartu izanak berak erakusten digu behin eta berriz aipatu dela FNak bideraturiko aldaketa, eta hori normalizazio semantikoraino. 2011n, kideen %67,65 bere alde kokaturik, Marine Le Penek irabazi zuen FNaren lehendakaritza eta orduan lotu zitzaizkion estrategia berriari –parean zuen, eskola zahar eta gogorreko

Bruno Gollnisch; Jean-Marie Le Penen gisara publikoki postura errebisionistak ukandakoa–. Estrategiaren parte izan zen ere 2018an izena aldatu izana: FNak zekarren zama ideologikoa –deabruarena, faxismoarena– alde batera utzi eta RN Batasun Nazionala jarri zioten, beste alderdi politikoen gisara, aukera demokratiko gisa plazaratuz.

FN/RNak 50 urte betetzen dituen honetan, merezi du alderdiaren bilakaerari begiratzeak, urtez urte, hauteskunder hauteskunde handituz doalako alderdi autoritario xenofoboa boterera heltzeko aukera. 1972an sortu zuten Ordre Nouveau talde neofaxistako kideek –Aljeria frantsesaren nostalgikoek, Petainistek eta naziek–, aktibismoaz gain, bide legalista ere jorratu behar zutela pentsatuz. Hortik 30 urtera, 2002an heldu zen



AITA ALABAK

1972an sortu zuen Fronte Nazionala Jean-Marie Le Penek. 2011 arte egon zen alderdiaren buru. Lekukoa eman zion Marine alabari, kideen %67,65ak horren alde eginik.

lehen aldiz Frantziako lehendakaritza-ko bigarren itzulira Jean-Marie Le Pen, Jacques Chirac eskuindarraren parean botoen %17,8 bildurik.

Garaian, 4,8 milioi hautesle zituen lehen itzulian eta bigarrenean 5,5 milioi. Hogei urte pasa direla, beti bigarren itzulirako lehian dago hautagaitza, orain Marine alaba buru eta anitzez sostengu handiagoarekin: 8,1 milioi bozkatzailerik sostengua erakutsirik lehen itzulian eta 13,2 milioik bigarren. Zifren dantza bukatzeko, 20 urtez bikoiztu da Fronte Nazionalari bideratu sostengua eta are larriago, bi itzulien artean eskuin muturrera jotzen duten hautesle berrien kopurua ikaragarri emendatu da: 2002an eskuin muturreko botoa %14,58 emendatu zen bi itzulien artean, 2022an %62,9.

Jean Jaures fundazioak argitaraturiko *Le dossier Le Pen. Idéologie, image, électorat* ("Le Pen txostena. Ideologia,

1972an sortu zuten Ordre Nouveau talde neofaxistako kideek FN, aktibismoaz gain, bide legalista ere jorratu behar zutela pentsatuz

irudia, hauteslea") interesgarria da "deabruaren itxura garbiketa" sakonkiago ulertzeko: Proposamen politikoetatik ala komunikaziotik kendu dute deabrua? Hau da, azalaz gain, mamia ere aldaturik dute ala ez? 1990eko hamarkadaz geroztik, arloz arlo proposamenek harturiko bilakaera aztertutik konklusio argia

daukate txostenaren egileek: erradikalki eskuin muturrekoa izaten segitzen du bere programak.

Deabruaren itxura galtzea lau elementuei lotzen dute egileek: "Marine Le Penek komunikazioa eztitu izana, bere aitak izandako adierazpen polemikoenak alde batera utziz"; eskuin muturreko Eric Zemmour hautagai berri eta bortitzaren presentziari esker, "ispilu jokoagatik, Marine Le Penen posturak argiki moderatuagoak iruditzea, nahiz eta muturrekoak izaten segitu"; "eskuin moderatuak baita lehendakaritza daukan La République en Marche alderdiak bere tonua gogortu izana"; eta azkenik, "komunikabideen paisaiaren bilakaerak eragindako eskuin muturreko ideien normalizazioa -Vincent Bollorék CNews eta Europe 1 erosi izanak editorialista kontserbadore edota identitarioei lekua bideratu die, tartean, Eugénie Bastié, Mathieu Bock-Côté eta luzaz Eric Zemmouri-".

Marine Le Pen berak irakurketa hori egiten zuen jada 2011n: “Gure diskurtsoa lapurtuz ahuldu gaitu Sarkozy, baina epe ertainera, azkarturik aterako gara: hein handi batean, berari esker ezabatu-ko zaigu daukagun deabruaren irudia”. Adierazpen horretatik hamarkada pasa dela, ezin uka aurreikuspen zuzena zuela.

ALDAKETA, ITXURARENA

Faxismoaren aurpegi argienak lehen lerrotik kendu izanak eta bere aitaren diskurtso antisemitaz bereizi izanak ez du erran nahi ideia horietatik aldendu denik alderdia. Ez dauka zehazturik, baina erran gabe doa faxistek lekua daukatela FN/RN familian: ideiak ez direno argiki baztertzen, bertan gelditzen dira. Gainera, ohartarazi beharra dago Marine Le Pen eta alderdiko buru gehienak aspaldiko militanteak direla, hots, ezer erran gabe, formakuntza antisemita eta negazionista jasotakoak, asumiturikoak eta inoiz deitoratu gabekoak direla.

Okerrago: luzaz identitatearen, nazionalismoaren eta migrazioaren gaietan zentratu arren bere diskurtsoa, kanpaina

Faxismoaren aurpegi argienak lehen lerrotik kendu izanak ez du erran nahi ideia horietatik aldendu denik alderdia

honetan ez du ia erabili karta hori: “Es-kuin muturraren kultura politikoa erabat irauliz, Marine Le Penek ez du gehiago *anti-système* hautagaitza izan nahi, batasunarena baizik”, irakurri daiteke “Le Pen txostena. Ideologia, irudia, hauteslea” dokumentuan. Jukutria ezin hobe betetzen dabil: ezer erran gabe ere, arrazistek eta faxistek badakite haien hautagaitza dela; eta tonu arrazista ez duenez gehiago beharrezkoa, lortzen du arrazistetatik at biltzen jendea, prekariedade sozioekonomikoan dagoena xarmatzeko

landutako diskurtsoari esker: “‘Hase-reen juntaketa’ lortu nahi du. Bigarren itzulirako ondokoa du jomugan: Jean-Luc Melenchon-en hautagaitza”.

Zemmourek bigarren itzulirako Le Penen aldeko boto kontsigna eman izana ez zuen errefusatu. Alta, berak errana da nazi batzuk daudela Zemmouren aldekoetan: “Komunitarismoan dago. Ez nago izpiritu horretan. Nire helburua ez da Asterixen herrixka defenditzea, baizik eta frantsesei haien herria itzultzea. FNaren historian etorri eta ateratako zenbait elementu deabrudun ikusten ditut Zemmouren inguruan. Katoliko tradizionalistak, paganoak, eta nazi zenbait. Hori ez da lehendakaritzarako postura bat”. Le Penek hartu ditu beraz inolako trabarik gabe lehen itzulian Zemmouren alde egindako beste 2,5 milioi hautesle xenofoboren bozak.

EMOZIOETATIK ETA EMOZIOETARA


Diskurtsoaz gain, bere jarrera ere erabat aldatu du azken bost urteetan. Herritarren emozioei begiratu eta araberako jarrera hartzen dabil. Adibidez, iazko



LES RATS MAUDITS

LE PENEN LAGUNAK

Argazkian ageri da Frederic Chatillon eskuin muturreko aktibista, GUD Groupe Union Defense talde faxistako kide zenean. Marine Le Penen hauteskunde kanpaina antolatzen aritu zen 2017an.



MARINE LE PENEN BLOGA

"HURBILTASUNA"

Diskurtsoaz gain, Marine Le Penen jarrera aldaketa ere begibistakoa da. Frantziako lehendakaritzarako kanpainan zehar, behin eta berriz agertu da bere gatuekin, "eztitasuna" eta "goxotasuna" irudikatzen asmoz.

maiatzeko France Emotions inkestaren arabera, herritarren artean gailenduriko sentimentua tristurarena (%36) eta etsipenarena (%31) ziren eta parean, poza irudikatzen hasi zen: "Postura ihardukitzalea utzi (aurpegi zurruna, ahots agresiboa, haserrearen hatza...) eta barre eta irribarreei lekua egin die. Lehen barre 'hotza' baldin bazuen, orain humanizazio keinu gisa ikusia da. Barrez leherturik agertzen da, lehen arras gutxi egiten zuena kamara aurrean". Iazko abenduko inkestan nekea gailendurik (%57), "etxeko goxotasuna" zabaltzen dabil ere, tartean, bere gatuekilako harreman hurbila plazaratuz, Instagram

FN/RNak deabruaren itxura galdu izana lotua da ere komunikabideetan gertatu eskuin muturreko ideien normalizazioari

eta TikTok bidez zein kazetarietarako jokoan. Aldaketak funtzionatzen du, begibistakoa bada ere: %46 sentitzen da

Le Penen partetik "ulertua" –gero datoz Melenchon (%41) eta Macron (%27)–.

Guztia du landua, eta emankorki dabil eskuin muturreko bozez gain, eskuin muturrean ez diren boto paperak ere biltzen. Ideia gogoetagarria dakar *FN/RN: les dangers de la dédiabolisation* ("FN/RN: deabruaren itxura kentzearen arriskuak"): "Faxismoari ez zaio nahiko existitzea, garatu nahian dabil. Gerra ondorengo mugimendu faxistak 1970eko hamarkadan egiten saiatu zena egiten dabil gaur egun FN: daukan espazioari egokitu herentzia faxista, hautesleko multzo zabal bati zuzendu, ondotik 'haien irudira' bilakarazteko"... ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 - 20004 Donostia
T. 943 420 624
www.zinkunegioptika.com



LAPIMA Eguzkitako betaurreko bilduma berria



EMIGRAZIOA ESPERIENTZIA ERRADIKALA IZAN DA ETA DA, MIGRATZAILEAK EZ DAKIELAKO INOIZ ITZULIKO OTE DEN



Azucre liburuak 1.700 gazteren istorioa kontatzen du. 1853an, Galizia utzi eta Kubara bidaia latza egin zuten hango kanabera-azukre plantazioetan lana eta etorkizun oparoagoa aurkituko zituztelakoan. Errealitatea oso bestelakoa izan zen ordea: Urbano Feijóo de Sotomayor galiziar lur jabe handiak uhartean kolonizazio zuria sustatu nahian, engainaturik eraman zituen mutikoak esklabo gisan erabiltzeko. Egiazko gertakari hauek bildu ditu Bibiana Candiak bere lehen eleberrian. Nafarroako Liburu-saltzaileen Elkartek berriki eman dio bere saria.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Zergatik zen ezezaguna istorio hau?

Esklabo galiziarrena ez zen ezkututako istorioa, baina inork ez zuen ezagutzen. Hori izan zen gehien erakarri ninduen. Enigma moduko bat zen. Lagun batek honetaz hitz egin zidan eta interneten begiratuta informazio pila atera nuen, baina nik galdetzen nion jendeari, denak galziarrak, eta inork ez zekien ezer. Harritu egin ninduen nola ez zaigun iritsi herri memoriaren bidez. Bada ongi funtzionatzen ez duen zerbait.

Ez da interes kontua, izan ere, jendeari kontatzen diozunean izugarri interesatzen zaio, baina istorioak ez zuen belaunaldien artean behar beza-

la bidaiatu eta horregatik erabaki nuen idaztea. Testigantza kolektibo bat egin nahi nuen, protagonisten begiekin ikusita. Artxiboetako datu hotz asko dugu, baina alde humanoa entzun behar da eta gertatu zena gure herriaren memorian txertatu.

Miseriak ez dira garaipen handiak adina transmititzen?

Epikak badu alderdi ilun bat. Epika gizagaixo askoren bizitzen gainean erakitzen da eta hori ezagutzeak helduago egiten du jendartea.

Antzeko beste gertakari batzuk aurkitu nituen. Adibidez, britainiarrek ir-

landarrak erabili zituztela esklabo gisa kobrezko meategi batzuetan eta baita AEBetako kotoi soroetan ere. Hala-koak gertatu izan dira beti pobrenekin, gosekilekin. Lege unibertsala da beti egonen direla pertsona desesperatuak eta haietaz aprobetxatuko den eskrupulurik gabeko jendea. Hori ez da aldatzen. Ziklikoa da eta behin eta berriz errepikatzen da. Mundua mugiarazten duen mekanismoa da. Azucre-ren kasua inguratu zuen eskandalu handia ez zen izan uhartean esklaboak zeudelako, baizik eta herrikideak, hau da, zuriak, esklabo bihurtu zituztelako. Hori zen onartezina.



Bibiana Candia Becerra

1977, A CORUÑA



Idazlea eta artikulu-egilea da. Ikuspegi feminista eta kritika sozial zorrotza dira bere idazkien bizkar-hezurra, umore dosi nabarmen batez. *La rueda del hámster* eta *Las trapezistas no tenemos novio* olerki bildumak, *El pie de Kafka* eta *Fe de erratas* kontakizun-liburuak argitaratu ditu. *Jot Down*, *Letras Libres* eta *The Objective* aldizkarietan kolaboratzen du. *Azucre* da bere lehen eleberria.

Nola egin zenuen datu historikoen bilketa?

Modu digitalean. Interneten dokumentazio itzela dago eskuragarri. Agiri nagusia Diputatuen Kongresuan dagoen txosten bat da. Gazte hauen hiru familiak salaketa jarri zuten kontratuen errebisioa eskatuz eta Ramón de la Sagra diputatu galiziarrek eraman zuen gaia Kongresura. Hor biltzen diren egiazko testigantzek oilo ipurdia jartzen dizute.

Liburu hau irakurtzea murgiltze esperientzia moduko bat da.

Bertan zaudela sentitzen duzu.

Nola lortu duzu?

Memoria kolektiboa nahi nuen adierazi. Nik bilatzen nuena zen istorio bat non protagonisten ahotsak gurtzatzen diren zer gertatu zitzaizen zuri kontatzeko. Batek hitz egin eta besteak erantzun, edo pluralean hitz egin edo zuzenean irakurlearekin. Ahozko estiloa bilatu nuen propio, ahozko transmisioetik etortzen zaizkigun errelato horien estiloa. Ahots narratiboa lortzea izan zen zailena.

Proba asko egin nituen: lehen pertsonan, hirugarrenean, pluralean... baina ez zuen funtzionatzen. Horregatik erabaki nuen denak batera erabiltzea.

Eromena ematen zuen, paranoia bat, baina bat-batean funtzionatu zuen eta handik aurrera dena azkar joan zen. Dokumentatu nintzen nobela historiko kanoniko bat idatzi behar banu bezala, eszenatoki zehatza sortzeko eta nik neuk jakiteko zerekin egingen zuten topo gaztetxo horiek. Ondoren, jakinda zer gertatuko zitzaizen, fikziozko pertsonaiak askatu nituen giro horretan eta utzi nien erreakzionatzen askatasun osoz. Bilatu dudana izan da egia historikoaren eta erabateko fikzioaren arteko oreka. Nik bilatzen nuena zen irakurleak *rapaz* [mutil gaztea galizieraz] horiek ezagutzea. Batzuetan pentsatzen dugu XIXgarren mendeko jendea beste planeta edo espezie batekoak direla. Oso urrun sentitzen ditugu, baina uste baino antzekoagoak gara.

Esaten duzunean "1.700 gazte galiziar eraman zituzten Kubara azukrekanaberan lan egitera, eta esklabo

gisa amaitu zuten", esaldi gogorra da, baina hamar minutura ahaztu zaizu. Titular bat gehiago baino ez da. Baina zuk pertsonalizatzen badituzu gazte horiek, banaka ezagutzen badituzu, ikusten duzu gu bezalakoak izan daitezkeela eta une horretan aldatzen da pertzepzioa.

Bestalde, herri kondaira batek herri hizkeraz, folkloreaz eta sinesmenez "kutsatuta" egon behar du eta horregatik halako elementu asko erabiltzen ditut. Alde horretatik Galizia oso aberatsa da. Itsasoa, berez, eremu mitologiko propio bat da.

Zergatik aldarrikatzen duzu iragana ezagutzearen garrantzia?

Nondik gatozen jakitea ezinbestekoa da nora joan nahi dugun erabakitzeko. Gure aurrekoekin zerikusia duen guztiak eragiten digu, nahiz eta guk hori ez jakin. Gure heziketa eta gure munduaren ikuskera haien bizipenen arabera dago modelatuta. Horregatik da garrantzitsua iragana ezagutzea. Nire aitona, adibidez, nekazaria zen, Santiagotik gertuko herri txiki batekoa. Xumea zen eta ia eskolagabea. Hamarkada batzuk lehenago jaio izan balitz, hauetako bat izanzen zen seguru aski. Hori ikustean ohartu nintzen nik istorio honetako jende hura ezagutzen nuela, Galiziako landa eremua ez delako asko aldatu XIXgarren mendetik hona. Sofistikatu da pixka batean, baina besterik ez. Herri txikiak oso tradizionalak dira, lurrari oso itsatsiak.

Hasi nintzen gauza asko aurkitzen gure identitatea eta nire galiziaratasunarekin zerikusirik dutenak. Liburuaren hasieran jarri ditudan Rosalia de Castroren bertsoak –"Galicia está probe i a Habana me vou... ¡Adiós, adiós prendas do meu corazón!"– (pobre dago Galizia eta Habanara noa... Adio, adio ene bihotzeko kutunak!) oso esanguratsuak dira. Hau gertatu zenean Rosaliak 16 urte zituen eta ezagutu behar zuen. Bat batean atzeman nuen bertso horiek barnean duten min guztia. Dena hasten da esanahia hartzen. Zure kultura gaur egunera arte nola iritsi zaizun ikusteko bide ematen dizu iragana ezagutzeak.

“Lege unibertsala da beti egonen direla pertsona desesperatuak eta haietaz aprobetxatuko den eskrupulurik gabeko jendea”



Emigrazioa eta Galizia oso lotuta egon dira beti.

Ez dut ezagutzen Galizian familia migraturik ez duen inor. Guk Brasilen, Santo Domingon, Uruguain, Suitzan... Hemengo jende guztiak gutxienez hiru herrialde desberdinetan ditu senideak eta horrek ere zama handia du. Ilargian galiziar bat dagoela esaten dugu erdi txantxetan, adieraziz gureak edonora joateko prest daudela etorkizun hobe baten bila. Iragan tragiko batetik dator joera hori: pasa dugun gosea, gobernu zentralak gaizki tratatu izan gaitu beti...

Kanpotik orain gurera datozen pertsonen drama bera...

Oso azkar ahazten dugu duela gutxira arte gureak ari zirela munduan barrena, baldintza negargarrietan, bizirik irauteko moduaren bila. Berdin dio gerra batetik edo miseriatik ihes egiten baduzu, ihes guztiak zilegi dira. Gu orain alde oparoan gaude, baina, hala ere, edozein momentutan alda daiteke, Ukrainan ger-

tatu den bezala. Jende horiek gu bezalakoak dira eta beren etxean lasai zeuden bonbardatuak izan arte.

Emigrazioa esperientzia erradikala izan da eta bada gaur egun ere, migratzaileak ez dakielako inoiz itzuliko ote den. Gaur egun asko dira leku negargarrietan bizi diren migratzaileak, baina horiez historiak ez du hitz eginen.

Gaur egungo esklaboak dira?

Jakina. Latinoamerikako eta Europa ekialdeko emakume asko etxeetan lan egiteko aitzakiarekin ekarri eta gero prostituitzera behartzen dituzte. Esklabotza izugarria da hori. Egoera hau behin eta berriz errepikatzen da historian.

Sorterrian gelditzen direnak ere biktimak dira?

Zalantzarik gabe. Geratzen denarentzat, alde egiten duena, nolabait, hilda dago. Dolua pasa behar du. Askotan ez dakite alde egindakoa inoiz itzuliko ote den.



Of the record

ADIKZIOA

Bibianarekin solas egitea plazera da. Mintzakide aparta eta dibertigarria da. Lehen aldiz etorri zen Iruñera martxoan, liburu saltzaileek emandako saria jasotzera. *Azucre* euskarazko liburuekin batera erakusleihoetan ikusteak izugarritzko ilusioa egin zion. Oso eskertua zegoen liburu saltzaile eta liburuazainekin, eta izugarritzko arrakasta lortzen ari delako ahozahokoari esker. Elkarrikketa amaituta, interneten eta sare sozialetan bilatu nituen bere testu gehiago eta trapezisten poema liburua enkargatu. Itzela. Adikzioa sortzen duten idazle horietako bat da.

Komunikaziorako hainbeste baliabiderik ez zutenean, duela urte batzuk arte, bereizketa definitiboa izan zitekeen. Hildakorik gabeko alargunaren figura oso ezaguna da Galizian.

Feijóo de Sotomayor ez da izanen Alberto Nuñez Feijóoren arbasoa?

Ez, kar kar. Oso abizen arrunta da eta gainera Feijóo de Sotomayor izen konposatua da. Madrilen egin genuen liburuen aurkezpena bai etorri zela oinardeko zen emakume bat. Ni urduritu nintzen pixka batean, baina nire harridurarako oso eskertuta zegoen hau dena ezagutzeko aukera izateagatik, berak ere ez zekielako ezer.

Idazle profesionala zara?

Orain bai. 2011n erabaki nuen egiten ari nintzen guztia etetea idazketan murgiltzeko. Honetara dedikatzeko asmo eta gogoia izan ditut betidanik, baina literaturatik urrun bizi zen familia bateko pertsona batentzat zaila zen. Idazle egiteko zer egin behar duzun esaten dizun esku-libururik ez dago. Ikasketak aukeratzera-koan argi nuen bakararra zen irakurri eta idatzi egin nahi nuela. Zuzenbide karrera

hasi eta filologiara pasa nintzen. Hori ere, ordea, ez zitzaidan gustatu nire literaturarekiko harremana ez zelako horren akademikoa, askoz organikoagoa baizik.

Lortu nuen A Coruña-ko unibertsitatean administrari postu bat, funtzionario gisa, baina nik ez nuela hor egon behar sentitzen nuen. Idazten aritu beharko nintzela uste nuen. Eleberri bat ezin da idatzi lanetik atera eta gelditzen zaizun denbora tarte horretan, non, gainera, eguneroko beste gauza guztiak egin behar dituzun. Egun batean nire bikote-kideak proposatu zidan Berlinera joatea, berari lan bat eskaini baitzioten han eta niretzat, behingoz, idazten jarduteko aukera izan zitekeelakoan.

Han hasi nintzen ene literatura proiektuarekin. Bi poema liburu atera nituen, hainbat kolaborazio egin nituen komunikabide batzuetan eta Cervantes Institutuarekin hasi nintzen kolaboratzen literatura kafe-solasaldietan. Horrek guztiak aukera eman zidan Azucre idazteko.

Orain bizi naiteke literaturatik. Orain arte ez. Baina apustu moduko bat da, negozio bat irekitzen duzunean bezala. Hasieran inbertsioa egin behar duzu gero fruituak jasotzeko. Horregatik inguruan duzuna oso garrantzitsua da.

Begi bistan izan arren, ikusten ez ditugun errealitateen aldarrikapena egiten duzu askotan. *Legion de las señoras en bata* testuarekin Julio Camba saria irabazi zenuen 2021ean, adibidez.

Asko gustatzen zait errealitatea hartu eta izkina pixka bat altxatzea gordeta dagoen hori erakusteko.

Andereak, oro har, ez dira oso serio hartzen. Batzuk amonaxo goxoak bezala aurkezten dizkigute, besteak, aldiz, oso modu barregarrian, mantala jantzita ibiltzen diren herri txikietako emakume horiek, adibidez. Eta azken horiek pertsona gogorrak dira. Denetik ikusi dute eta beti bigarren lerrotik. Beren amantala jantzita, eskuekin berdin oilo bat hil, patata batzuk lur azpitik atera edo arrautza bat frijitzen dute. Edozein gauza egiteko gai diren emakume horien indarra aldarrikatu nahi nuen. Oso pozik nago artikulu horrekin eta harro sentitzen naiz. Gainera oso erantzun zabala izan du mantalak toki guztietan

daudelako: Latinoamerikan, Alemanian, Europa osoan...

Zertarako balio du literaturak?

Mundua beste begi batzuetatik ikusteko. Begirada desberdin batez begiratzeko. Mundua toki seguru batetik esperimendatzeko. Zure sofaren segurtasunetik beste errealitate batzuk ezagutzeko aukera eta zure pentsamoldea zabaltzeko bidea. Niretzat erabateko askatasun eremua da.

Azucre gaztelaniaz dago idatzita baina galegoaren presentzia nabaria da, zergatik?

Niretzat egokiena izanen zen nobela hau aldi berean galegoz eta gaztelaniaz ateratzea, baina lehen eleberria izan da eta baliabide gutxi genuenez horrela atera dugu. Hala ere, oso garbi neukan elebitasunak presente egon behar zuela, elebidunak garenok argi dugulako hizkuntza aldaketa ez dela soilik erregistro aldaketa hutsa. Badira ñabardura asko eta solaskidearekin moldatzeko gogo bat.

Nahi nuen hori presente egon zedin liburuan. Nahi nuen errealitate horrekin bizi ez diren irakurleek testuan galegoa ikus eta uler zezaten. Erronka polita iruditu zitzaidan. Gainera ezin nituen imajinatu pertsonaia hauek gaztelania perfektuan hizketan, aditzen forma konposatuak erabiltzen, adibidez. Oso ongi funtzionatu du eta titulu ere galegoz dago, arazorik gabe. Nire asmoa da erakustea hizkuntzak kultura eta aberastasuna direla eta ez dutela zertan harresi izan behar, juxtu kontrakoa. Galiziera hor egoteak testua aberastu egiten du.

Oso garbi neukan elebitasunak presente egon behar zuela Azucre-n, elebidunak garenok argi dugulako hizkuntza aldaketa ez dela soilik erregistro aldaketa hutsa"

Nafarroako liburu-saltzaileek saritu dute Azucre aurten. Nola sentitzen zara?

Ohore handia izan da. Pepitas de calabaza argitaletxe xume bezain bereziarekin plazaratu dut lana eta argitaletxe handiek kaleratutako titulu ugarien artean testu zintzo batek bidea egin dezakeela ikusteak literaturarekiko fedea berreskuratzen laguntzen du. Nobedadez eta marketinez betetako itsaso bortitz eta zabal honetan bizirik iraun daitekeela erakusten dizu. Irakurleei eta liburu-saltzaileei nire esker ona eman nahi diet. ●



mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com



Iritziak

Zientzia sozialen alde



IKER IRAOLA ARRETXE
EHU-KO SOZIOLOGIAKO
IRAKASLEA

Noizean behin filosofiak hezkuntzan izan beharreko papera eztabaidagai izaten da, Hego Euskal Herrian bederen. Gutxiagotan eztabaidatzen da, ordea, gizarte zientzien lekuaz eta funtzioaz, bi gaiak oso lotuta egon arren. Oro har, azken urteetako joera da filosofiari eta pentsamenduari loturiko irakasgaiei eta edukiei lekua gutxitzen joatea, gizartean gehiago baloratzen omen diren gaitasun batzuen mesedetan. Horrela, filosofiako irakasgaiak lekua galdu du edo are zokoratu da erreformaz erreforma, eta aldi berean ezagutza sozialak, eta ikuspegi kritikoak orokorrean, ezbaian jartzen dira. Irakasgai eta jakintza alor zehatzei lotutako eztabaida izatetik urrun, joera hauek ondoko galderari atxikitzen zaizkio: zertarako da hezkuntza gure gizartean? Zer egiteko du?

Gutxieste joera hori gertatzeaz batera, adjektiborik gabe zientziazat hartzen diren arloek kontrakoa bizi dutela esango nuke: STEAM delakoak –askotan zientzia “gogorren” eufemismo bilakaturik– goraiatuak dira, maiz salatzen denez ikasle “onak” zientzietara bideratzen dira bigarren hezkuntzan, eta abar. Joera horietan guztietan hiru gako nabarmenduko nituzke.

Batetik, zer hartzen den zientziazat, kultura zientifikotzat; izan ere, zientziaren ikuspegi estua gailentzen dela iruditzen zait, zientziazat arlo batzuk

Zientzia sozialek
erakusten digute
arazoen iturburua
egiturazkoa dela,
lehen begiratuan
norbanakoaren
arazoak iruditu arren

soilik hartzen dituenak. Bigarrenik, horrek guztiak duen kutsu androzentriko garbia. Hain zuzen ere, jakina denez ezagutza arloetan –dela bigarren hezkuntzan, dela unibertsitatean, ikerketan, eta abar– generoen araberako banaketa argia gertatzen da oraindik, eta emakumeak nagusi diren ezagutzak dira joera horietan galtzaile irteten direnak. Horren aurrean, uste dut irtenbide bakarra ezin dela izan neskak bideratzea sozialak ez diren beste zientzia horietara; eta giza zientziak balioestea ere lehentasunezko egitekoa dela. Eta hirugarrenik, honek guztiak duen kutsu ideologiko argia ezin da azpimarratu gabe utzi: gizartean nagusi den mundu ikuskerari funtzionalak zaizkion gaiak baitira aldarrikatzen direnak.

Hezkuntzaren soziologiak eta ezagutza kritikoek, oro har, aspaldi erakutsi bezala, hezkuntzan nagusi diren gaiak, arloak, dinamikak... estuki loturik doaz gizarteko egiturei. Hezkuntzan egiten dena, nolabait esateko, gizartearen makineria osoaren zerbitzura dago, eta horregatik jotzen dira ezagutza batzuk baliogarritzat eta beste batzuk, aldiz, denbora pasa hutstzat. Paradoxikoki, hezkuntza kritika sortzeko esparrua ere bada, baina arestian esandako mugak ezin dira inoiz ahortzi, nire ustez.


Bada, hasierara itzuliz, filosofia hezkuntzan ezinbestekoa dela aldarrikatu beharra dago, eta aldarrikapen hori ezagutza sozialen aldarria batu. Zientzia sozialek erakusten digute arazoen iturburua egiturazkoa dela, lehen begiratuan norbanakoaren arazoak iruditu arren. Norbaitek esan dezake hori gizarte zientzia onak –edo filosofia onak– egiten duela, eta ados nago baieztapen horrekin. Baina hori beste eztabaida bat da: giza eta gizarte zientziek hezkuntzan eremuak galtzen jarraituz gero, ez da inolako espaziorik izango zientzia sozial ona eta txarren artean desberdindu ahal izateko.

Beraz, gizartean geroz eta gehiago guztia dagoenean azalpen eta irtenbide indibidualak gailendu daitezen bideratua, funtsezkoa iruditzen zait hezkuntzan ere zientzia sozialen ekarpena aldarrikatzea, gure bizitzetan eragiten duten egoeren egiturazko izaera ulertu ahal izateko baldintza gisa. ●

Telebista utz, bizioaren bat pitz



BEIA SALABERRY
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Maskarak mokotik atera ditugunik eta denetan sar gaitezkeenetik gure buruak eskaneatu gabe, gauzak aldatu dira. Egiazki. Ez gara hereneguneko bizimoldera itzuli, ez, ez baita sekulan berriz ordukora itzultzerik izanen.

Alta. Bisaia aldatu dira. Usainak ere. Eta usaiak.

Horretaz bada testigu bat: Facebook eta Netflixen aztaparretatik libratzen ari gara, hala dirudi behintzat. Azken asteetan azaldu baita bi enpresa horiek, besteak beste, gibelera ari direla.

Beheiti omen doa afera, ARGIAko zutabe hauetan bertan, beste batzuek nik baino anitzez hobeki azaldu dute nondik norakoa. Batetik harpidetza kopurua gutxitu omen zaie, ez bakarrik adibidez Netflixek Errusiako harpidetzak eteteko hautua egin duelako, beste hainbat kide galdu baitituzte, segur aski konfinatze sasoen bukaerari zor. Bestetik, burtsan galera handiak izan dituzte, kapitalak ihes egiten baitu, hau da akziodunek nahiago dutela haien dirutza berreskuratu beste zenbait aferatan inbertitzeko, behar bada proposatuko diguten produktu berri baten ekoizteko, gure burmuin zati eskuragarri eskaintzeko.

Kapitalaren bideak horrelakoxeak dira, zer eginen diogu ba? Nehon eta deuse-tan akzio txiki bakarra sekulan ukan ez dugunek, hasteko, deus.

Sare sozialen beherakada senditzen zen lehenagotik, pertsonalki 2020az geroztik gero eta gibelapen handiagoo hartu dut. Alta, nork erranen zuen holakorik niregandik? Arrazoi anitz banituen. Bata orduan jasotzen genuen informazio oldearengatik, bestea kalapita lekuak bilakatuak baitziren, azkenik eta sustut, Santi Leonek Twitter utzi zuelako eta ondorioz poesia kotsiaz pribatu gintuen horrek.

Orain Netflixen aldi da, gainbehera jasaten omen du. Eta ene begiek ez dute negar handirik isuriko horregatik, ez baitakit zer den. Azken hiruzpalau urteetan sekulako arrakasta zuen nahierako telebista zerbitzuak, eta ondorio hau ez dut ateratzen inongo ikerlanetako datuen irakurketatik, konklusio horretara heltzeko aski baitut entzutea kafe tenoreko elkarrizketen nondik norakoa, barra izkinakoak ala bulego ziloetakoak. Prezio miserable batengatik, omen, telebista zerbitzu erraldoia eskaintzen du Netflixek eta konkurrenteen aldean zerbitzu anitzez hobea. Disney-k bai-

no. Canal-ek baino. Warner-ek baino. Diotenez, ikaragarria eta iraultzailea da, ohiko telebista kateetan eskaintzen diren programa mediokreei alternatiba paregabea. Katalogoa erraldoia dela, hala diote lankideek, gauak eta gauak iragaitekoa, zurrumbilota, ehunka serie desberdin, denak liluragarri eta originalak, eta denak hain berdintsuak, irudikaa ezina dela diote, argi urdinak kaptaturik, batetik bestera, bizi osoa iragan daitekeela, zerbait ikusten, zernahi, gaur bata, bihar bestea, hala kon-datzen didate. Hori dela libertatea, bizia eta sosa nahi den horretan gastatzea, nahi denari beha.

Baiki, on dagiela, zeren ulergaitza baita hori dena telebistari begira, hautuz nahiz bortxaz, hilabeteen gehienik ere hiruzpalau oren besterik iragaiten ez ditugunontzat.

Azken finean, bada esperantza, badi-rudi jendeak atxeman duela zeregin hoberik. Izan ere, ez dira eskas: liburu bat erostea, larrua jotzea, txurro multzoan gaindi xokoleta beroa nola hedatzen den begiratzea, jasmina kimatzea, apirileko Biarritzeko portu zaharreko urak probatzea... Telebista utz eta bizio zenbait piztea, hots. ●

Ruandara oporretan



JOSE IGNAZIO
ANSORENA
TXISTULARIA

Aste Santua baino santuagorik ez zagoz –lagun batek–. "Rondara niak oporretan". Rondara ez, Ruandara bidali nahi ditu Boris Johnsonen Manta txako kanala era irregularrean igarotzen duten etorkinak. Ez du merezi bezalako eskandalurik sortu iritzi publikoan. Handiagoa eragin dute itxialdi garaietako festa txoro batzuk. Etikak eta kupidak baino, morboak eta berritsuakeriak mugitzen gaituzten seinale.

Ostiral santuan Urgull mendiko gurutze-bidera joan nintzen. Apala eta sarkorra. Lehen musikarekin txoritxo guztiak kantari. Itsaso zabala gure azpian eta inguruan donostiarrok hain maite dugun mendia. Kristau mezuak hezurretaraino blaitzeko giroa.

Berpizkunde egunean Aberri Eguna. Nik *Gernikako Arbola*, ahots kraskatuaz baina bihotzez, kantatu eta seme-alabei WhatsApp bidali, ikasten ote duten. Zaila. Garaiak aldatuz doaz etengabe.

Aurreko astean Korrikaren amaiera Donostian. Egun osoa txistua jotzen pasa genuen. Arratsaldeko erromerian gazte ugari dantzan, eskuan garagardo ontzia. Askok euskaraz. Garagardoarena kenduta, pozgarria.

Bezperagoko ostiralean, biloben ikastolako haurrak kalera atera ziren garrasi batean: "Ttipi ttpa, ttipi ttpa, Korrika".

Horietako asko lantoki aurrean izaten ditut arratsaldero futboleak. Beti erdaraz. Bota nien: "Korrika... mingaina euskaraz". Zaharrak esan. *El abuelo* deitu zidan Udalinfo-ko bulegoetan atzetik nuen etorkin ez gazteegiak. Gogoia eman zidan Ruandara bidaltzeko.

Egun komisiarik kobratzen ez duena ez da inor. Nori bururatu lan egin, dago-kion soldata justua kobratu eta bizitza duina eraman nahi izatea? *Ez da posible*, Ruperrek kantatua. Iñaki Segurola zendu berriak idatzi zuen: Arrazoia ez dago edukitzerik. Hamazazpi urte nituenean edo, artean euskaraz ongi jakin ez, kuadrillako eztabaidetan sarri errepikatzen nuen: *La razón no se tiene, la razón es*. Denok dugu nerabezaroan harrokeria puntu bat izateko eskubidea. Pello lagunak honela kopiatu zidan batean: *La razón no se tiene, la razón se es*. Ez nuen esaldia gehiago aipatu.

Niri ez didate telefonoa hackeatu, ez dut komisiarik hartu. Ez naiz inor. Mirri pailazoak maiz esaten du: Triste nago. Aurten berrogeita hamar urte pailazotzan hasi ginela. Ez nago triste, ordea. Pozik nago eta kemenaz betea. Zaharra naiz, *el abuelo*, baina irmo plantatua.

Ez dut gerra aipatu. Ni ere, Putin bezala, gerra emateko prest. Armarik gabekoa baina. Agian Ruandara oporretan joateko ere bai. ●

Fikzioaren gramatika (eta VIII): edulogotxo



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Fikzioa omen da komunikazioa, norberaren interpretazioa ez bezala. Fikzioa omen da egia, gezurra ez bezala. Fikzioa omen da errealtatea, fikzioa bera ez bezala. A. Alieva

Y ou da iragarkietan gehien erabiltzen den hitza, duela urte batzuk irakurri zenuenez. Ameriketako Estatu Batuetan egindako ikerketa baten emaitza zen, zenbait hamarkada luzetan merkantilizazioaren kultura gehien esportatu duen herrialdean. Hartara, psikologia aplikatuari esker, salgai bakoitza zeuregatik eta zeuretzat da egina: zeu zara protagonista. Zeu helburua. Zeu produktua.

Publizitatean ez ezik, propagandan ere noiznahi agertzen da bigarren pertsona enpatikoa. Xedearen arabera egituratzen dira diskurtsoak, helburuaren arabera bideratzen mezuak. Sare sozialak itzalean gobernatzen dituzten algoritmoek ere bikoiztuz elikatzen dute erretrorika zahar berria.

Gramatiketik, fikzioaren bidea urratuagatik ere, nekez hitz egiten dute bigarren pertsonan.

Indarrean dirauen aldarri klasikoari helduta, zeure burua ezagutzeko bide amaigabea jarraituko duzu. Jakinik mundua, maiz aski, zapata hautsia dela; eta zu, kasurik onenean, edulogotxo. ●

Adituak



MATI ITURRALDE
MEDIKUA

Adituen ezinbesteko laguntza erabiltzen dut nire lan esparruan, medikuntzan. Gaur egun, Internetek mila aukera ematen dizkigu iritzi berriak eta harrigarriak topatzeko, bai eta manipulazio asko ikusteko ere, baina pertsona jakintsuak topatzen ditudanean haien ekarpenak benetan eskertzen ditut. Oso urrunera joan gabe, pandemiaren zurrunbiloaren eta nahasmenaren erdian, hainbat aditu interesgarri aurkitu nuen, irizpidedunak eta jantziak; baina, tamalez, ez zuten inolako tokirik izan masa-komunikabideetan, hain beharrezkoa zitzaigun argia eman ahal izateko. Aditu horiek niretzat lagungarri dira, oraindik orain, beste begirada bat izateko, begirada libre eta desberdina. Gehien-gehienak “luzerako galtzaileak” izan eta izaten dira, batez ere interes ilun eta zikinetatik oso urrun mantentzen direlako, eta, gainera, mundua aldarazteko eta hobetzeko prest daudelako.

Baina emakume eta gizon jakintsu eta argitsu horien parean, bestelako “aditu” eta “espezialistak” ere agertzen dira

Pandemiari buruzko
desinformazioari
ekin eta gero orain
geopolitikaren alorrean
ari dira, lasai asko,
lehengo harrokeria eta
ausarkeria berarekin

masa komunikabidetan egunero. Batzuk irakasleak, beste batzuk “arrazako kazetariak” edo profesional ospetsuak, guztiak beldurraren diskurtso menderatzailerak elikatzeke prest. Gehienek behin eta berriro ukatu dute edozein eztabaidaren aukera, eta, aldi berean, dogma bakararen bozeramale bihurtu dira, ikuspegi ezberdinak edo disidenteak gupidarik gabe irainduz.

Eta orain, berriro ere, istorioa errepikatzen ari da: bat-batean gerrari buruzko “adituak” agertu dira nonahi. Are gehiago, batzuk rola errepikatzen ari dira, eta pandemiari buruzko desinformazioari ekin eta gero orain geopolitikaren alorrean ari dira, lasai asko, lehengo harrokeria eta ausarkeria berarekin. Hamaika datu nahasten dituzte armiei, estrategia militarrei edota populazioaren beharrezkoen eta kalteei buruz. Hainbeste pertsonen –hildakoak edo bizirik daudenak– irudi lazgarriekin jolastean, errespetu falta itzela eta neurrigabeko lotsagabekeria adierazten dute. Haien helburu bakarra emozio primarioak sortzea da: gorrotoa eta beldurra. Ezin dugu ahaztu “aditu garaile” horiek guztiek oso interes jakinak defenditzen dituztela eta komunikazio oligopolioek horretarako erabiltzen dituztela, noski.

Horrela dago, tamalez, gaur eta hemen, komunikazioaren negozioa, eta horrexegatik ahalegin handiak egin beharko genituzke informazio iturri alternatiboak arakatzeko, “luzerako galtzaileen” iritziak izan arren. ●



endanea
MÁS QUE UN GARDEN

943 64 17 10
www.endanea.com

**Bertakoaren
balioa**

Eman bertako produktuei merezi duten tokia. Gurean, Hondarribian ekoiztutako landareak aurkituko dituzu.

Online denda





Apirilaren 4tik ekainaren 30era



AURREZ AURREKOA

Ogasuneko eta Gertu bulegoetan, 8:30etatik 19:00etara,
aurretiko hitzorduarekin 94 406 66 00 telefonoan



TELEFONOS

94 608 3000

8:30etatik 19:00etara



DIGITALA

www.bizkaia.eus/errenta

Bizkaia Errenta app



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

TAPIA LEGEA

Jaurlaritzak botere gehiago, udalek gutxiago

Gobernantza ereduari sakon eragiten dioten bi aldaketa bultzatu ditu Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetan. Abenduaren 9an Eusko Legebiltzarrak Ingurumen Administrazioaren Legea onartu zuen, “interes publiko goreneko” proiektuen inguruko erabakimena udalerriek kenduz eta Jaurlaritzari emanez. Bigarren urratsak bide luzea du aurretik oraindik, baina Jaurlaritzaren asmoa da izaera hori

aitortzea enpresa pribatuek bultzatzen dituzten eta ingurumenarekin loturarik ez duten proiektuei. Aldaketa garrantzitsu horien izaera zein onartzeko erabili diren moduak aztertu nahi ditugu. Legebiltzarreko eztabaidetan hurrenez hurren aldaketaren alde eta aurka nabarmendu diren EAJko María Eugenia Arrizabalagarekin eta EH Bilduko Mikel Oterorekin hitz egin dugu horretarako, besteak beste.

 ZIGOR OLABARRÍA OLEAGA

Arantxa Tapiak zuzentzen duen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak bultzatu ditu bi lege aldaketak. 2021eko urtarrilean Ingurumen Administrazioaren Legearen aurreproiektua aurkeztu zuen legebiltzarrean. Urte erdi beranduago, ekainean, Zaldibarreko zabortegiko lurrunak bero oraindik, 106 emendakin egin zizkieten EAJ eta PSEk legeari. 61. emendakinak beste lege bat aldatzea eskatzen zuen –Lurralde Antolamendua- ren Legea– Interes Publiko Goreneko Proiektuen (IPGP) kategoriatik sortzeko. IPGPek “sustapen publikokoak” eta ingurumenari lotutakoak izan behar dute, udalen hirigintza plan orokorren (HAPO) gainetik kokatzen dira, eta proiektu bati izendapen hori ematea Jaurlaritzaren eskumena da. Arantxa Tapiak emenda-

kinaren defentsa sutsua egin du; emendakin hori da Tapiak Legea izena hartu duena. Beharrezko jo zuen “Eusko Jaurlaritzak udal-planteamendua gaitz de- zakeen mekanismo bat izatea”. EAJk eta PSEk beren gehiengo absolutua baliatu zuten legea onartzeko, oposizio guztiak aurkako boza eman zuen.

61. EMENDAKINA

Legebiltzarkide eta Euzkadi Buru Batzarreko kide María Eugenia Arrizabalaga Olaizolak 61. emendakinaren inguruan sortutako “zalaparta”ren ardura EH Bilduri egotzi dio: “Batzuek nahiago dute kontra egin konponbidearen parte izan baino”. IPGPen sorrera Jaurlaritzaren ingurumen politikaren helburuekin lotu ditu, gogoratuz 2030erako kontsumitzen den energiaren %40 “jasangarria” izan behar duela. Erabakia Zaldibarreko

zabortegiarekin lotuta dago?: “Arazo larri bat dugu, Zaldibarrekoa gertatu ez balitz ere izango genuke: industria hondakinena. Herri industrialak gara, eta hori kudeatu beharra dago. Zabortegi gutxi geratzen dira eta epe laburrean ez da nahikoa leku egongo beharrei erantzuteko. IPGPen motibazio printzipala hori da”.

EH Bilduko legebiltzarkide Mikel Otero Gabirondok gogor hitz egin du neurriaren aurka. “A eta B aldeak” ezberdintzen ditu. A aldea eman diren arrazoi publikoak lirateke: “Arazoak daudela zaborrak kudeatzeko azpiegiturekin. Tapiak zabortegiak, araztegiak eta antzekoak aipatzen ditu”. B aldea aitortzen ez diren bestelako interesena litzateke: “Bidea irekita utzi nahi da Jaurlaritzak mota oso ezberdinetako proiektuak inposatzeko udalerrien



LEGE BILTZARRA EUS

Arantxa Tapia, Iñigo Urkullurekin legebiltzarrean abenduaren 9an, Tapia Legea eztabaidatu eta bozkatu

erresistentziaren gainetik". Erresistentzia horien adibide bezala jartzen ditu atzera bota izana gasa erazteko plana Gasteizen, edo zabortege proiektuak Azkoitian eta Lezaman.

Egitasmo bati IPGP izendapena emateko prozedura "berme handikoa" da Arrizabalagaren iritzian: "Dokumentazio mordoa aurkeztu behar da, ingurumen baldintzak bete, udalerriari audientzia emango zaio bere ikuspegia eman dezan...". Kontrako ustea du Oterok: "Diote, 'ez kezkatu, gero legezko berme guztiak eskatuko dira': ingurumen baimen bateratuak... Horrek bermeak ematen ditu? Batzuk bai. Baina, Petronorrek badu baimenik? Gipuzkoako eta Bizkaiko erraustegiek? Paper fabrikek? Bai. Legeak ez du ziurtatzen ingurumenerako edo osasunerako kaltegarria ez izatea".

Tapia Legearen aurretik ere, Jauralaritzak bazituen udal eskumenen gainetik dauden baliabideak lurraldearen eta azpiegituren antolamenduan: Lurralde Plan Partzialak eta Lurralde Plan Sekto-

“

Beharrezkoa da Jauralaritzak udal-planteamendua gaindi dezakeen mekanismo bat izatea”

Arantxa Tapia

rialak. Oteroren iritzian erreminta nahikoak "planifikazio zentzuzko bat egiteko, muturreko lege aldaketa hauetara heldu gabe". Arrizabalagari "barregura" eragiten dio EH Bildutik planifikazio sektoriala defendatzea, "horiek gatazkak ekidin izan balituzte bezala". Energia Eolikoaren Lurralde Plan Sektoriala gogoratu du, 2000ko hamarkada hasieran onartu zena: "Sendatu ditu horrek kontrako hainbat jarrera? Ez".

EMENDAKINA VS LEGE ALDAKETA

IPGPen kategoria sortzeko, Ingurumen Administrazioaren Legeari eginda-ko emendakin baten bitartez aldatu du Jauralaritzak Lurralde Antolamendua- ren Legea. Urrats hain mamitsua izanik, naturalagoa lirudike zuzenean Lurralde Antolamendua- ren Lege aldaketa edo lege berria aurkeztea. Ezberdintasunak handiak dira modu batera edo bestera egin: emendakinen onarpen prozedura laburragoa da eta eztabaida dagokion ponentziako legebiltzarkideei mugatua dago –osoko bilkuran bozkatu arte–; lege aldaketa batek denbora gehiago eskatzen du, Eudelek legearen balorazio txostena egin beharko luke edo batzordera adituak eta eragileak gonbidatu ditzakete talde politikoek.

"Lege proiektua aurreko legegintzaldikoa da. Gobernua berritzean erabaki zen tramite parlamentarioak lehenbailehen abiatzea. Gerora, talde bakoitzak bere zuzenketak aurkeztu zituen, besterik gabe", azaldu du Arrizabalagak emendakina eta ez lege aldaketa aurkeztearen zergatia.

EUDEL ETA GORKA URTARAN PRESIDENTEA

Emendakinaren bideak izan du bestelako ondorio garrantzitsu bat. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak dio Eudelek udal eskumenei eragin diezaiekeen edozein lege aztertu behar duela onartua izan aurretik. Horrela egin zuen Eudelek Ingurumen Administrazioaren Legearekin, urtarrilean Arantxa Tapiaren sailak aurreproiektua aurkeztu zuenean, eta ez zion eragozpenik jarri. EAJ-PSEk, ordea, emendakinak ostean aurkeztu zituzten, ekainean. Elkarrekin Podemos-IU eta EH Bilduko dozenaka alkatek eskatu zioten publikoki Eudeli txosten berria egin zezan 61. emendakina aztertzeko, baita hainbat udalek ere. Oterok dio Azpeitiko alkate Nagore Alkorta berdin egin zuela Eudelen exekutiban, “hiru alditan, baina gehiengo duen EAJ-PSEk ez zuen onartu” (Eudeleko exekutiba osatzen dute EAJko Gorka Urtaran presidenteak, eta EH Bilduko Nagore Alkorta eta PSEko José Antonio Santano presidenteordeak).

“Legeak dio lege proiektu oro Eudeletik pasa behar duela txostena egin dezan. Eta hori bete da. Ez du esaten zuzenketek ere pasa beharko dutenik”, dio Arrizabalagak. Legeak behartzen ez badu ere, ez al da logikoa Eudelek azterketa berritua egitea?: “Guk aldarrikatzen dugu legebiltzarren herri ordezkartzaren legitimitatea, kasu honetan bezala beste guztietan”. Oterok onartu du “urrats formalak” bete dela, “baina garrantzia handiagoa ematen diot gobernuak egindako tranpari”.

“Eudeleko presidenteak behin eta berri errepikatu du legeak ez dakarrela udal eskumenei aurkako ezer”, gogoratu du Arrizabalagak. “Udaletan sortu duen eztabaidaren atzean interes politikoko antzerkia dago”, adierazi zuen Urtaranek urtarrilean Euskadi Irratiko *Faktoria* saioan. Martxoan, ordea, Eudelek txostena egin du IPGPen zabaltzea proposatzen duen Trantsizio Energetikoari eta Klima-aldaketai buruzko Lege-aurreproiektua aztertuz. Aurreproiektuarena ez ezik, oro har IPGPen sorrera aztertzen du txostenak, balorazio oso-oso kritikoa eginez: IPGPen “justifikazioa eta legitimitatea” zalantzan jartzen ditu; Espainiako Konstituzioaren aurkakoa izan daitekeela neurria; lurralde eta hirigintza planeamenduak “desnaturalizatu eta deslegitimatatu” egiten dituela adierazten du; IPGPekin udalerriei proiektuak “inposatu” ahal zaizkiola dio; IPGPak salbuespe-

Mikel Otero legebiltzarrean abenduaren 9an, Tapia Legea eztabaidatu eta bozkatu zen egunean.



LEGBILTZARRA.EUS

“

Jaurlaritzak ikusi du unea egokia dela gobernantza ereduari estatu kolpe bat emateko”

Mikel Otero

nekoak izan beharko luketela eta orokortzeko arriskua dagoela; proiektu bat ezin dela horrela izendatu “soilik Gobernuak onartzen duelako”. [Eudelen txostenaren laburpen osatuagoa, ondoko koadroan]. Arantxa Tapiak Eudelen irakurketa kritikatu du udalei iritzia “hiru aldiz” eskatzen zaiela nabarmenduz, eta konstituzioaren aurkakoa izan daitekeela esatea “gehiegizkotzat” joz. Apirilean 40 urte egin ditu udalen erakundeak: “Erakundeen arteko lankidetzak goraipatu du Eudelek”, irakurri daiteke elkartearen webgunean urteurrenaren ospakizun ekitaldiaz. Kontuak kontu, udal eskumenei zuzenean

eragiten dion lege bat udalerrien hitza entzun gabe onartu da, haien interesak ordezkatzeko omen dituen erakundearen oniritziarekin eta bere presidentearen sustengutik aktiboarekin.

ETA PSE?

Alberto Alonso Martínek defendatu zuen legebiltzarrean PSEk Tapia Legeari emandako aldeko boza. Modu lausoan iradoki zuen gustuko izan ez arren PSEk “beharrezko oreka lehenetsi” zuela “koalizioa gobernua mantentzeko”. Oreka zail horren adibide izan daiteke José Antonio Santanoren jarrera. Irungo alkate bezala, aldeko boza eman zion Eudelek Tapia Legea azter zezan eskatzen zuen mozioari, “udalerrien eskumenei eta tokiko autonomiari zuzenean eragiten dielako”. Eudeleko exekutibako kide bezala, erakundeak azterketa hori bera egitea ekidin zuen Gorka Urtaranekin bat eginez.

“Badirudi PSEri ez zaiola gustatu, baina aldeko boza eman du”, dio Oterok. Arrizabalagak erabat ezeztatu du legeak gobernu koalizioako kideen artean arazorik sortu izana: “Inolakorik ez, hasiera-hasieratik zegoen adostasuna”. Hurrengo urratsari begira ere akordioa erabatekoa dela dio, “dudarik gabe”.

EUDEL

“IPGPak udalerri-
inposatzen zaizkie ia
inongo parte-hartzerik
gabe”

2022ko martxoan Eudelek Tapia Legea eta Interes Publiko Goreneko Proiektuen kategoria aztertzen di-
tuen txostena onartu zuen. Kritika oso
gogorak zuzentzen dizkio Arantxa
Tapiaren sailari, azalez zein mamiz,
IPGPen legitimitate demokratikoa eta
legala bera auzitan jarritz. Hemen pa-
sarte esanguratsuenak:

IPGP-EN INGURUAN ORO HAR:

“Udalerri-
inposatzen zaizkie, ia inon-
go parte-hartzerik gabe. Udalerri-
ekimenaren berri izango dute soilik,
eta ez dute inolako eraginik izango ho-
rrela deklaraturako proiektuak auka-
ratzeko, egiteko, konfiguratzeko eta
aplikatzeko orduan”.

“Proiektu horien garrantziak es-
katzen du, gutxienez eta zalantzarik
gabe, espazio garrantzitsu eta egoki
bat ematea zergatien azalpenari. Hori
gabe, legeak [Espainiako] Auzitegi
Konstituzionalak berak eskatutako
proportzio- eta arrazoizkotasun-ka-
nona hautsi dezake”.

IPGP-AK EKIMEN PRIBATUARI ETA INGURUMENAREKIN LOTURARIK EZ DUTEN EGITASMOEI ZABALTZEAREN INGURUAN:

“Sustapen pribatura eta ‘bestelako
proiektuetara’ zabaltzen da (...) ingu-
rumen helburu hutsetatik aldenduz
eta kontzeptu zehaztugabeak sortuz,
justifikaezinak edo justifikatzen oso
zailak direnak”.

“[Sustapen pribatuak] zalantzak
areagotzen ditu IPGPen justifikazio
eta legitimitatearen inguruan, interes
publikoaren ikuspegitik eta gai horri
buruzko doktrina konstituzionalaren
ikuspegitik”.

“‘Bestelako proiektuetara’ heda-
tzeak desadostasuna eta kezka sor-
tzen digu (...) ezaugarri horietako fi-
gura bat salbuespenez erabili behar
da (...) proiektuak eta ekimenak ezin
dira inplizituki interes publiko han-
diagokotzat jo Gobernuak onartzen
dituelako soilik”.



María Eugenia Arrizabalaga
legebiltzarrean,
abenduaren 9an, Tapia
Legea eztabaidatu eta
bozkatu zen egunean.

LEGEBILTZARRA.EUS

“

Pisua badu, baina sortu
den errelato politikoak
ikaragarri atera ditu
gauzak bere onetik”

María Eugenia Arrizabalaga

TAPIA LEGEA 2.0

Energia Trantsizioarako eta Klima Al-
daketarako Legearen aurreproiektua
sinatu zuen Arantxa Tapiak 2021eko
azaroan. Aurreproiektuak Tapia Le-
gea moldatzea proposatzen du. Egun,
IPGPak, “ekimen publikoak” sustatu
behar ditu; orain, nahi da “ekimen pu-
blikoak eta/edo pribatuak” izan ahal
izatea sustatzaileak. Egun, IPGPak izan
behar dira, “erabilgarritasun publi-
koko eta ingurumen-interes soziale-
ko instalazioak”; orain nahi da “beste
proiektu mota batzuk” ere izan ahal
izatea. Finean, oso sakonak liratekeen

bi aldaketa: ateak irekitzea sustapen
pribatuari, eta ingurumenarekin lotu-
ra ez duten proiektuei. Deigarria, bide
batez, ingurumenarekin lotuta ez dauden
proiektuei bide eman nahi izatea izen
hori daraman legea baliatuta.

Arrizabalagak egoki ikusten du al-
daketa, eta erreminta “eraginkorra”
izan daitekeela uste du. “Zergatik en-
presa pribatuek sustatutakoek ere?
Adibidez, Euskadin dauden hamar bat
zabortegietatik bizpahiru soilik dira
izaera publikokoak. Zergatik ez ingu-
rumenarekin lotuta ez dauden gauze-
tarako? Ospitale bat, demagun”. Azpi-
marratu du, halere, “interes publikoa
eta soziala” justifikatu behar dela beti:
“IPGPak ezin dira apeta pertsonalaren
arabera ezarri, Tapiaz esaten direnak
erabat injustuak iruditzen zaizkit”.

Oteroren iritzian frogatuta geratu
da erreportaje hasieran aipatu dituen
A eta B aldean artean “B aldeak due-
la pisu gehiago: nazkatuta gaude uda-
lerrietatik Jaurlearitzaren askotariko
planak gelditzeaz, eta hori ekiditeko
erreminta garatuko dugu”. Interes pu-
blikoa edo premia justifikatu beharra
ez dela ezeren berme dio: “Sail batetiki

hori justifikatzea oso erraza da, Tapiia espezialista da horretan: AHTa ingurumeneko onuragarria da CO2 gutxiago askatzen delako Madrilera hegazkinez joaten baino. Corrugados [Azpeitiko altzairutegia], premiazkoa da? Enpleguak sortuko dira eta enpleguak sortzea premiazkoa da gobernuarentzako”.

Arantxa Tapiak 2021eko azaroaren 26an sinatu zuen Energia Trantsizio-rako Legearen aurreproiektua. Hau da, abenduan Tapiia Legearen lehenbiziko bertsioa eztatidatu eta bozkatu zenean legebiltzarrean, mahai gainean zegoen jada IPGPak ekimen pribatuari eta ingurumenaz bestelako proiektuei zabaltzea, oraindik publikoa ez bazen ere. Eztabaida haietan, ordea, Arrizabalagak eta Tapiak hainbat aldiz azpimarratu zuten IPGPen figura ingurumen arloko proiektuentzako eta zehazki hondakinen kudeaketarekin lotuta daudenentzako erabiliko zela soilik. Ordurako Trantsizio Energetikoaren legeak IPGPen inguruan planteatzen zuena ezagutzen ote zuten, Arrizabalagak ezetz dio buruarekin: “Jaurlaritza eta legebiltzarra erakunde ezberdinak dira, eta bakoitzak bere dinamika eta bizitza propioa du”. Edonola dela, ez dio arazorik ikusten: “Ez dago inongo kontraesanik. Guk 61. zuzenketa eztatidatzen genuen. Trantsizio Energetikoaren Legearen eztabaida heltzen denean eztatidatuko dugu besteaz”.

Ez dago Trantsizio Energetikoaren Legea onartzeko epe finkorik. Arrizabalagak dio “ahalik eta azkarren” onartu nahi duela gobernuak, baina ez dagoela epeak zehazterik: “Espero dut urte honetan izatea, baina ez dakit”. *El Diario Vasco*-k argitaratu zuen urte amaieran onartzea dela Tapiaren asmoa. Oterori epe horiek “justu samarrak” iruditzen zaizkio. Edonola dela, denbora dago legebiltzarrean bozkatua izan aurretik.

ZERTAN GAUZATU DAITEKE TAPIA LEGEA?

EAEko hondakinak prebenitu eta kudeatzeko 2030eko plana txostenean Arantxa Tapiak zuzentzen duen sailak, besteak beste, “Hondakin ez-arriskutsuak eta eraikuntza- eta eraispin- hondakinak” hartzen dituzten zabortegeien egoera eta 2030 arteko beharrak aurreikusten ditu. “Azkenean konponbide hau azpiegitura fisikoetan oinarritzen bada, azpiegitura horiek honela hartuko dira: ‘onura publikoko eta gizarte-intereseko azpiegiturak’ eta/edo ‘interes publiko goreneko proiektuak’”, dio



txostenak. Baina Tapiia Legeak gehiagorako aukera ere ematen du.

IPGPen figura Nafarroan erabili da Aroztegi hirigintza turistikoko makroproiektua inposatzeko, edo Olaztiko Cementos Portland enpresa erraustegi bihurtzeko. Valentzian golf zelaiak egiteko, edo Madrilén Eurovegas eraikitzeko, besteak beste. Antzeko proiektuak IPGPak izendatzeko arriskua dago EAEn? “Bai, horren beldur gara erabat, behin atea irekita kristoren arriskua du”, dio Oterok. Uste du, halere, hautsak ez harrotzeko hasiera batean behintzat “tentuz” jokatu eta proiektu “gutxi” izendatuko dituztela IPGP. Kontrara, “sekula santan ez ditugu horrelako proiektuak lehenetsi, ez da gure asmoa izan eta esaten dizut ez dela sekula izango”, dio Arrizabalagak.

GALDERAK ETA ZIURTASUNAK

Gobernantza ereduaren aldaketa esanguratsua da Tapiia Legea. “Jaurlaritzak ikusi du unea egokia dela esku kolpe

bat emateko”, dio Oterok; “Bere pisua badu, baina sortu den errelato politikoak ikaragarri ateratzen ditu gauzak bere onetik”, Arrizabalagak. Alde edo kontra egon, boterearen zentralizazioan sakontzen du eta eztabaida publiko urria izan da prozesuan. Legearen 2.0 bertsioak zentralizazioan sakontzea lekarke.

Trantsizio Energetikoaren Legea legegintzaldiko garrantzitsuenetakoa da, eta are garrantzitsuagoa bilakatu da Ukrainako gerraren ondorioak direla eta. Pentsatzekoa da Jaurlaritzari kontsentsu argazki batek mesede egingo liokeela, berriki Hezkuntza Itunarekin lortu duenaren ildotik. Tapiia Legea arazo bat izan daiteke behintzat Elkarrekin Podemos-IU eta EH Bildu taldeak akordiora ekartzeko; argazkitik kanpo gelditzearen presioa ere senti dezakete, aitzitik. Oterok dio “oso gogorra” litzatekeela “legean adostu behar diren gauza potolo pila alde batera geratzea”, baina, gobernuak Tapiia Legea kanpoan uzten

EAJren ekitaldia klima
aldaketaren inguruan,
2020ko ekainean.



EAJ-PNV/EUS

ez badu, Trantsizio Energetikoaren Legeari osoko zuzenketa aurkeztuko diola EH Bilduk: "Hau guretzat *casus belli* da".

Tapia Legea beste bide batetik onartzea bilatuko du Jaurlaritzak, edo akordio zabalei uko egin eta guztiarekin egingo du aurrera berriz ere? Ba al dago inongo aukerarik PSEk bestelako jarrera bat hartzeko? Zer egingo dute oposizioko taldeek? Udalerriek eta Eudelek egingo al dute legea gelditzeko lan eraginkorrik? Herri mugimendua izango al da gai aipatutako horiek denak mugiarazteko? Erantzunik gabeko galdera asko, eta bi ziurtasun behintzat bai: baga, EAJ-PSEk gehiengo osoa dute edozein proiektu onartzeko, eta gaur gaurkoz ez dute gainean nahi dutena egitea oztopatuko liekeen presio esanguratsurik; biga, IPGPak ekimen pribatuari eta ingurumenaz bestelako proiektuei zabalduko liekeen legearen 2.0 bertsioa onartu ala ez, Tapia Legea indarrean da jada, eta aplikatua izateko prest. ●

ANALISIA

Tapia Legea: gatazkak aktibatu edota desaktibatzekeo erreminta?

Jaurlaritzak bultzatzen dituen eta udalek arbuiazen dituzten proiektuen inguruko gatazkak edo posizio kontrajarriak beti egon dira, desadostasunak bizitza politikoa-ren parte dira. Baina azkenaldian EAEn ugaritu egin direla ematen du: lurzorutik gasa erauzteko proiektua Gasteizen, zaborteziak Lezaman edo Azkoitian, Corrugados lantegia Azpeitian... Azpeitian EH Bildu dago alkatetzan, beste hiru udaletan EAJ.

Aipatu kasuetan bezala, alkateak maiz posizionatzen dira hierarkia handiagoko erakundeetatik ezarri nahi zaizkien proiektuen aurka. Batzuetan konbentzimenduz, bestetan taktikoki bozak galtzeko beldurrez. Udalean eta -kasu honetan- Jaurlaritzan agintean daudenak alderdi bereko kide direnean, alderdia kaltetzen duten tentsioak sortu daitezke. Tapia Legeak tentsio mota horiek desaktibatzen lagundu dezake, alkateari aukera ematen baitio proiektuaren aurka 'irmoki' posizionatzeko bere herritarren aurrean, behin IPGP izendatuta erabakia bere eskumena ez dela jakiteak ematen duen lasaitasunarekin. Gasteizen PPko Javier Marotok hori egin zuen Garoñako zentral nuklearrarekin, eta kalterako izan zitekeen ustezko korapiloa boto iturri bilakatu zuen. Noski, gatazka iturri ere izan daiteke Tapia Legea zentzu berean, alkate alderdikide zein oposizio-koek agindu, inposizioaren hatsa estaltzen zaila izango baita.

Tapia Legearen erabilera alderdikoi makurragorik ere irudikatu genezake. Jaurlaritzak 'bakea' ziurtatu dezake gobernatzeko di-

tuen eta estrategiko jotzen dituen hiri edo herrietan, bertan proiektu polemikorik planteatzea ekidinez. Edo, 'gerra' piztu dezake agintean dagoen oposizioa kaltetu nahi duen udaletan, udalak nahi ez dituen baina herritarren artean aldeko eta kontrako jarrera sutsuak piztu ditzaketen proiektuak eramanetz -hedabideen 'kolaborazio' egoki batekin-. Zer gertatuko litzateke Corrugados lantegia eta berarekin zekartzan 'enpleguak' eta 'aberastasuna' IPGP izendatu izan balitu Jaurlaritzak? Zer gertatuko litzateke, pobrezia eta langabezia handiagoko testuinguruan?

Urrutira jo gabe, EAJk trantsizio energetiko 'berdea' ardatz duten Europako Next Generation funtsetara aurkeztu ditu AHT eta EUNEIZ unibertsitate pribatua, edo Gasteizko Corte Inglesen zamaletarako kaiaren obrak -"tokiko merkataritza berpiztea" eta "gosearekin amaitzea" helburu-. Zer proiektu ez ote dezake izendatu "interes publiko goreneko" edo "premiazko", energiaren, ekonomia-aren edo lanpostuen izenean? Garai oparoagoetan ere Petronorrek, industria militarrek edo turistifikazio masiboak apenas sortu badute kontraktotasunik jendarrean 'enplegua' eta 'aberastasuna' ematen dutelako... Zer ez ote deza-kegu onartu herritarrok pobretze, kolapso eta beldur garaian?

Tapia Legea eredu sozioekonomiko bat inposatzeko eta goitik behera gatazkak aktibatu eta desaktibatzekeo erreminta izateko arriskua hor dago; legea behetik gora gobernantza eta jendarte eredu auzitan jartzeko palanka gisa erabiltzeko aukera bilakatzea ere.

KEZKA HERRI MUGIMENDUETAN

“Bergaran Tapia Legea aplikatu lezakete erraustegia inposatzeko”



Araba Bizirik plataformaren mobilizazioa Tapia Legearen aurka, legebiltzarraren aurrean.

Valogreene Paper enpresak paper lantegien hondakinak hartu eta pirolisi bidez erreko lituzkeen fabrika jarri nahi du Bergaran. Herritarrak aurka antolatu dira; udalak baimena ukatu dio; Jaurlaritzak proiektua babesten du. Ekologistak Martxan taldeko Piter Encinasekin hitz egin dugu, Bergarako proiektuaren aurka sortu den Larramendiko Arnasa plataforman ere ari dena lanean. Adibide ona izan daiteke Bergarakoa, Tapia Legearen balizko ondorio eta arriskuez hausnartzeko?

Proiektuak Euskadiko Paperaren Klusterraren babesa du. Lehen Zaldibarreko zabortegean botatzen zituzten beren hondakinak paper lantegiek, eta orain ‘irtenbideak’ behar dituzte. Valogreenek ekainean aurkeztu zuen proiektua, lantegia Bergarako Larramendi industrialdean ezartzeko. Uztailean baimena eman zion udalak, baina azaroan baliogabetu zuen bi arrazoi argudiatuta: batetik, enpresak aurkeztutako txostenean adierazten zen jarduera ez zettorrela bat ingurumen baimen bateratua lortzeko proiektuan jasota

koarekin; eta, bestetik, Bergarako Hirigintza Plan Orokorrak ez duela baimentzen hondakinak kudeaketa jarduerarik. Jaurlaritzak proiektuari ingurumen baimen bateratua onartu dio, eta proiektua babesten du. Udalak helegitea aurkeztuko duela iragarri du berriki.

Encinasi Ekologistak Martxaneko Bilboko kideek deitu zioten Bergaran erraustegi proiektu bat zegoela ohartarazteko. Ordurako udalak baimena eman zion enpresari, “txostenean gezurrak zeudelako, besteak beste”, dio Encinasek. Bergarako zenbait herritarrekin bildu zen,

eta alkatearekin ere jarri zen harremanetan, informazioa partekatzeko. Martxoan Larramendiko Arnasa ekimen herritarra aurkeztu da ofizialki, baina proiektuaren aurka dauden herritarrak lehenago hasi ziren lanean. “Indar handiena informatzean jarri dugu”, dio Encinasek. Egin dituzte mahai-inguru eta hitzaldiak, mobilizazioak, bildu dituzte 4.000 sinadura baino gehiago. Udalarri dagokionez, baimena kentzeaz gain osoko bilkurak proiektuaren aurkako mozioa onartu zuen abenduan, EH Bildu eta Elkarrekin Ahal dugu taldeen aldeko bozekin, eta EAJ eta PSEren aurkakoeekin.

IKUSPUNTU KONTRAJARRIAK

Bergarako proiektuaz eta sortutako gatazkaz galdetu diogu EAJko Euzkadi Buru Batzarreko kide eta legebiltzarkide María Eugenia Arrizabalagari. Ukatu egiten du enpresak udalari iruzur egin izana txostenean, eta ukatu du ere jarri nahi den lantegia erraustegia denik, “batzuek horrela pentsatu nahi badute ere”. Encinasentzat informatzeko, mobilizatzeko eta udalean eragiteko prozesu herritar positiboa dena erabat negatiboa da Arrizabalagarentzat. “Beti gauza bera esaten dute”, dio mugimendu ekologistez. Bergarako kasuan udalak hasieran “dena oso ondo” ikusi zuela dio, “gero ekologistaren bat hasi

“

Udalak eta herritarrak eskuak lotuta ditugu. Protesta egitea eta antolatzea soilik geratzen zaigu”



Larramendi industrialdeko H partzela. Bertan eraiki nahi du Valogreene enpresak papertegien hondakinak erretzeko lantegia.

GOIENAEUS

zen bazterrak astintzen, eta horrek baldintzatu du udal gobernuaren iritzia”.

Proiektuaren aldekoek pirolisia planta dela diote, eta pirolisia ez dela errausketa; aurkakoeak diote pirolisia errausketa dela, beste mota batekoa baina errausketa, eta kutsadura sortzen duela –azken iritzi hori defendatzen dute Larramendiko Arnasak, Ekologistak Martxanek, Greenpeacek edo Gaia errausketaren aurkako mundu aliantzak-. Aldekoek sortuko liratekeen lanpostuak nabarmendu dituzte; aurkakoeak ekologia eta osasuna. Aldekoek Jaurilaritzaren babesa dute; aurkakoeak udalarena. Antzeko egoerak bizi izan dira, bizi dira eta biziko dira beste proiektu batzuen inguruan ere erkidego osoan. Tapia Legeak nola eragin lezake honen moduko testuinguruan?

BERGARAKO PROIEKTUA IPGP?

“Tapia Legeak pisu handia izango du”, dio Encinasek: “Udalak esaten badu, 'hau ez dugu nahi', baina Jaurilaritzak interes publiko goreneko izendapena ematen badio...”. Bergarako kasuan proiektuaren bultzatzailea enpresa pribatua da, beraz egungo Tapia Legea ezingo litzateke aplikatu, baina Jaurilaritzak egin nahi duen moldaketa berriarekin, sustatzaile pribatuei ateak irekiko liekeena, orduan posible litzateke. Gertatuko balitz, azaroan Tapia Legearen aurkako mozioa onartu zuen udal bati aplikatuko litzaioke Tapia Legea. Arrizabalagak dio ez dakiela Jaurilaritzak Bergarako proiektua IPGP izendatuko duen edo ez: “Arrastorik ez dut. Une honetan buruan duguna industria hondakinak dira”. Bergarakoa ez da za-

bortegia, baina bai industria hondakinak kudeatzeko azpiegitura.

MANIFESTAZIOA GASTEIZEN

Mugimendu ekologista da legearen aurka mobilizatu den herri mugimendu bakarra. Tapia Legearekin proiektu kaltegarriak erakundeetan gelditzea zailtzen dela nabarmentzen du Encinasek. “Antidemokratikoa da. Oztupoekin amaitzeko sortu dute, udalak eta herritarrak eskuak lotuta ditugu. Protesta egitea eta antolatzea soilik geratzen zaigu”. Abenduan Sukar Horiak mugimenduak kontzentrazioa egin zuen Bilbon, “herriaren” hitza “errespetatzeko” exijituz. Araba Bizirik plataforma da salaketan gehien nabarmendu dena. “[EAJ]k Boteretsua defendatzen du, parte-hartzeko ditugun arauak eta tresnak mespretxatzen ditu eta tokiko autonomia eta subiranotasuna baliorik gabe uzten ditu”, salatu du. Hainbat mobilizazio eta ekimen egin ditu Tapia Legearen aurka, eta maiatzaren 14rako manifestazioa antolatu du Gasteizen. ●

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

943 453 588 · www.sigacus.com

1931_{ko}

Euskal Errepublika: autodeterminazio eskubidearen katea

1931ko apirilean Espainian Bigarren Errepublika ezarri zen egun bertsuetan, udal ugari Euskal Errepublika aldarrikatzea eskatu zuten, "Euskal Herriko autodeterminazioaren lehen urrats bezala". Ideia errepublikazale eta soberanistak odolez ito zituzten bost urte geroago faxistek, baina aldarrikapen horren katea gaur arte iritsi zaigu.

 URKO APAOLAZA AVILA

Espainiako errege borboi Alfonso XIII.a Cartagenako portuan itsas gerraontzi batera igo eta Londrerako bidea hartu zuenetik, apenas igaro ziren ordu edo egun batzuk. 1931ko apirilaren 16an Azpeitiko udaletxeko areto nagusian herri hartako alkate, sindiko eta zinegotzi guztiak bildu ziren ez-ohiko batzarrean, eta mozio historikoa onartu zuten: "Estatu espainiarraren egituraketa berriaren aurrean, kargua uztera doan Azpeitiko hiribilduko udaletxeak, bere postua utzi aurretik, eta nazio bezala dagozkion eskubide natural eta histori-

koak baieztatu eta gero, Euskal Herriaren autodeterminazioaren lehen ekintza bezala Euskal Errepublika aldarrikatzea eskatzen du, beste Errepublika Iberikoe-kin konfederatuta".

Lau egun lehenago Espainiako Estatuan udal hauteskundeak egin ziren, eta Eibarren apirilaren 14an Bigarren Errepublika aldarrikatu ostean, monarka deserriratzeko ekarri zuen lurrikara politikoa sortu zen. Azpeitian, beste herri askotan bezala, udal berria hauteskunde prozesurik gabe osatu zen, 1907ko lege bat aplikatuz, baina kargua hartu zuten agintariek -tartean ziren abertzaleak

eta karlistak- euskal errepublika aldarrikatzea eskatzen zuen mozia berretsi zuten aho batez biharamunean, apirilaren 17an. Gauza bera egin zuten beste hamaika herritako udalbatzek ere.

AZPEITIA, HERNANI, LAZKAO, MARKINA...

Gertakari hura itu garrantzitsu bat izan zela iritzita eta "gure memoria historikoaren hutsune handi bat" betetzeko helburuz, Naziogintza Taldeak Euskal Errepublikaren Eguna antolatu du Azpeitian maiatzaren 7an, *Katea ez da eten* goiburupean. Bere ustez, alkate eta zi-





Dantzariak jendetzaz eta ikurrinez inguratuta 1931ko ekitaldi batean. Urte itxaropentsua izan zen, eta “euskal errepublika” aldarrikatzea eskatu zuten esparru politiko ezberdinetako agintariek. / KUTXA FOTOTEKA

negotzi horiek “ausardia izan zuten berezko errepublika bat eskatzeko gure herriarentzat”. Ekitaldira, 1931n mozioa onartu zuten beste udaletako ordezkariak ere gonbidatu dituzte, baita euskal herritar guztiak ere.

Naziogintzak lau urte daramatza Bizkaia eta Gipuzkoako herrietako artxi-boak arakatzen, eta Josu Albero taldeko kideak azaldu digunez beraiek ikerturiko 42 udalerritatik 19tan onartu zen Euskal Errepublikaren aldeko testua: Azpeitia, Bergara, Bermeo, Elorrio, Errearteria, Hernani, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Markina, Mundaka, Oñati,

Orio, Ormaiztegi, Urnieta, Usurbil, Zaldibia, Zestoa, eta Zumaia. Baina ikerketarekin jarraitzeko asmoa dute, “ziur gaudelako herri gehiagotan aldarrikatu zela”, dio Alberok.

Euskal Errepublikaren Eguna urtero herri batean ospatzea da Naziogintzaren proposamena, ekitaldiari “dimentsio nazionala” eman eta “euskal errepublikaren beharra sozializatzeko”.

DIKTADURATIK ERREPUBLIKARA

Euskal Errepublikaren aldarrikapen eskaera egoera politiko nahasian gertatu zen. 1930eko hamarkada hasieran es-

painiar monarkia oso deslegitimizaturik zegoen, Alfontso XIII.ak Primo de Riveraren diktadura babestu zuelako. Ezkerreko alderdi eta sindikatuak, baita beste alderdi errepublikar eta eskuineko liberal batzuk ere, erregimena aldatzeko prestatzen hasi ziren: 1930eko abuztuaren 17an *Donostiako Ituna* sinatu zuten indar errepublikazale eta katalanistek, Bigarren Errepublikaren alde.

1930eko abenduko Jakako altxamendua testuinguru horretan kokatu behar da. Zenbait militarrek Damaso Berenguer jenerala gobernutik kendu nahi izan zuten –ez zuelako aurreko diktadu-

rarekin hautsi-, baina ahaleginak porrot egin zuen eta matxinatuak erreprimitu zituzten.

Nolanahi ere, 1931ko udaberrian monarkiaren kontrako kanpaina batean zeuden sartuta mugimendu politiko gehienak, apirilaren 12ko hauteskunderi begira. Euskal Herrian ere giro horren oihartzunak nabarmenak ziren, Joxe Mari Lopetegi errepublikanoen bertsolariak La Frontera aldizkarian utzitako ale hau lekuko:

*Biyotza gora begiyak alai
guazen aurrera bidian
samintasunak azaldutzero
iruki gabe gordian;
urte pisuak izan ditugu
sei edo zazpi urtian,
lenaz gañera Dierri dana
sartu digute zorpian,
geyago emen ez da gauz onik
anaitzen geran artian.*

Plebiszitu izaera hartu zuten hauteskunderen lehen emaitzak jakiten hasi orduko, ikusi zen hiri handienetan –landa eremuan ez bezala– errepublikaren aldekoek aisa irabazi zutela. Gipuzkoan, adibidez, Donostian, Arrasaten, Irunen eta Eibarren zinegotzi andana lortu zuten. Eibarren hautatutako 19 zinegotzitik 10 sozialistak ziren, 8 errepublikarrak eta bat abertzalea. Ez da kasualitatea herri horretako udaletxeko balkoitik aldarrikatu izana, apirilaren 14ko goizaldean –oraindik bozetako emaitzak garbi ez zeudenean– Bigarren Errepublika; aldaketa politiko huts bat ez ezik, aurrerapauso sozial sakonen abiapuntu ere izan zen hura.

IBERIAR KONFEDERAZIOA

Ordu batzuk geroago, Francesc Macià Esquerra Republicana de Catalunya buruak Kataluniako Errepublika aldarrikatu zuen, “Espainiako gainerako herriak Errepublika gisa eratuko zain, Iberiar Konfederazioa osatzeko”. Bartzelonako udaletxeko balkoitik lehenik, eta diputazioko eraikineren balkoitik ondoren, Sant Jaume plazan bilduta zegoen jendetzaren aurrean jaurtitako mezuak haustura suposatzen zuen Espainiarekin: hilda baino ez zituztela hortik aterako esan zuen Maciàk, *d'aquí no ens trauran sino morts*.

Ez dakigu gauza bera pentsatzen ote zuen Jose Antonio Agirrek. Baina egun horretan bertan, Getxoko alkate zela, euskal errepublika aldarrikatu zuen



UZTARRIA / MAILO ORMAZABAL

2021eko apirilaren 17an, Azpeitiko udalbaltzak, euskal errepublika aldarrikatzea eskatzeko 90 urte lehenagoko mozio bera bozkatu eta onartu zuen aho batez: “Gure aurrekoek egin zuten eskaera hura berresten dugu gaur, eta Euskal Errepublika ere aldarrikatzen dugu Euskal Herriarentzat”.

Errepublika librez osaturiko iberiar federazioaren ideiak hiru egun baino ez zituen iraun

“Espainiako errepublikaren federazioaren barruan”, *Entre la libertad y la revolución* (Askatasunaren eta iraultzaren artean) liburuan idatzita utziko zuenez. Bermeo, Elorrio eta Mundakako alkatetekin batera, Agirrek deia luzatu zien Bizkaiko beste udalerrietako ordezkari apirilaren 17an Gernikako Batzar Nagusietan elkartu eta “herriek determinazio askez beren burua gobernatzeko duten eskubide naturalari jarraiki” euskal errepublika aitortua izan zedila eskatzeko.

Gernika Garellano errejimenduko metrailadoren inguratua esnatu zen, ordeza, eta udal agintariak ezin izan zuten hango arbola ikusi ere egin. Kanpoaldean sinatu behar izan zuten ma-

nifestua. Gainera, ordurako Espainiako Gobernu berriaren ministro-jendea Kataluniara bidean zen, Maciàrekin adosteko Generalitatea sortzea, estatu katalanaren aldarrikapenarekin atzera egiten bazuen.

Errepublika librez osaturiko iberiar federazioaren ideiak hiru egun baino ez zituen iraun. Euskaria fundazioak 2011n ekitaldi bat antolatu zuen Gernikan, gertakariaren 80. urteurrenean: “Egun hartan, lehen euskal Errepublika ezin izan zen izan Espainiako armada- ren eta Guardia Zibila- ren indarrez, bost urte geroago, ezta Espainiako bigarren Errepublika ere”.

ABERTZALEEN EKIMENA

Herri handietara ez ezik, txikietara ere zabaldutako autodeterminazio nahia egun bete horietan. Altzagako eta Aramako udalak izan ziren lehenengotakoak euskal errepublikaren aldarrikapen eskariarekin bat egiten, gero Ormaiztegi eta Itsasondo...

Kasu askotan testu bera da onartutakoa, eta abertzaleen eskutik bultzatu zen. 1930eko hamarkada hasieran abertzale eta karlisten mugimendu sinkretikoak ahalbidetu zuen errepublikaren aldeko korrante hori; baina errezeloa ere piztu zuen, monarkikoak batu zirelako zenbait kasutan: “Kontuz! Manio- bra baten aurrean al gaude?”, oharta-



WIKIPEDIA

Bartzelonako Sant Jaume plaza jendez gainezka zegoen 1931ko apirilaren 14ko arratsaldean, Francesc Macià ERCKo buruak udaletxeko balkoitik Kataluniako Errepublika aldarrikatu zuenean. Ordu batzuk lehenago, Eibarren, Bigarren Errepublika aldarrikatu zuten; iluntzean Alfontso XIII.ak erbesterako bidea hartua zuen.

razten zuen *La Voz de Guipuzcoa*-n Jesus Insausti kazetariak, *Uzturre* ezizenez idatziriko artikuluan.

Hala ere, herri gehienetan aho batez babestu zuten mozioa. Joxe Anjel Izuzkiza euskaltzale itsasondorarrak –Aramako udal idazkari ere bazena– *Murumendi* ezizenez idatzi ohi zuen prentsan, eta oso ongi laburbildu zuen giro politikoa:

“Euzkadiko errepublika eskatutzia da esatia monarki aldeko Gobernuak kendu zigun eskubidia eskatutzia. Ze asmo ederrak!”, zioen *Euzkadi*-n. Zortzi hamarkada geroago, udalen aldarri hura Goierriko Nazioen Mundua ekimenaren erreferentzia historiko bihurtu zen erabakitze eskubidearen alde, gero Gure Esku Dago izango zenaren ernamuina.


“NAHI DUGULAKO”

Ezkertiarrak indartsuago zeuden herrietan ere ez ziren atzera geratu, Zumaian kasu. Alderdi Errepublikarrak 5 zinegotzi lortu zituen –EAJk 6– eta udal banda *Marseillesa*-ren doinuak joaz ibili zen kaleetan barrena, Euskal Errepublikaren aldeko testua onartu orduko. George Barbarin idazle eta poeta frantziarra garai horietan Zumaian ibili zen, eta herriko gizartearen erretratu itzela utzi zigun *Jesusa Gipuzkoakoa* (Baleike, 2018) lanean –Xabier Azkue Ibarbiak eta Maia Ossa Rissanenek euskarara ekarria–: “Errege-erreginen garaian ez ginen auzartzen mezetara huts egiten”, esan zion emakume batek Barbarini. “Eta orain?” galdetu zion idazleak: “Orain berdin-berdin joaten gara, baina nahi dugulako”.



Erabaki ahal izatea zeinen “asmo ederra” den, Izuzkizari hitzak lapurtuz. Errepublikak eskubide hori ekarriko zuenaren esperantzan, pausoa eman zuten herri askotako zinegotzi eta alkateek urte itxaropentsu haietan.

Baina hitzak kate baten begi solteak besterik ez dira, edukiz josi ezean. Naziozintza Taldeko kideek, behintzat, argi dute: “Euskal Errepublika behar dugu gizarte justuagoa eta demokratikoagoa eskuratzeko. Eta Euskal Errepublika behar dugu gure hizkuntzari, gure kulturari eta gure identitate kolektiboari eusteko, eta herri bezala bizirik irauteko frantziar eta espainiar asmo asimilazionista asezi-n aurrean”. Hortaz, maiatzaren 7an hitzordua jarri dute Azpeitian, herrien autodeterminazioaren aldeko katea ez dela eten adierazteko. ●

Hiru dokumentu historiko



1931ko apirilaren 14tik aurrerako udal akta ugaritan jaso zen udalbatzen ekimena. Irudiotan, Azpeitia eta Zumaia dokumentuak euskal errepublika aldarrikatzea eskatzen, eta Gernikan bildutako udalen manifestua, Josen Antonio Agirre orduan Getxoko alkate zenaren artikuluan.



NAZIOGINTZA

Beste urrats bat emateko zapatak lotzeko unea

Pandemiak eragindako bi urteko hutsune behartuaren ostean, Senpereko lakuak Euskal Herriko txoko guztietako pertsonak jasoko ditu igande honetan, 2022ko Herri Urratsen. Itzulera honetan zapatilak lotu eta hainbat ikuskizun eta kontzertuz gozatzeaz gain, Seaskak bosgarren kolegioa irekitzeko finantzaketa lortu nahi du jaialdiari esker. Bereziki sinbolikoa izango da gainera aurtengo Herri Urrats, Senperen bertan irekiko baitute kolegioa, lakutik oso gertu.

 IÑAUT GONZALEZ DE MATAUKO RADA  PABLO S. QUIZA

Uste baino luzeagoa izan da itxaronaldia. Koronabirusak sortutako krisiak ekitaldi handi eta txiki guztiak gerarazi zituen, tartean Herri Urrats. 2019ko maiatzaren 12an egin zen azkenekoz Ipar Euskal Herriko ikastolen jaialdia Senperen, eta hiru urte geroago, kantuak, jauziak eta algara Senpereko lakura itzuliko dira.

Itzulera hau, gainera, bereziki garrantzitsua izango da, diru bilketak bosgarren kolegioa irekitzea ahalbidetuko baitio Seaskari. Ipar Euskal Herrian handitzen ari da ikasketak euskaraz egiteko eskaria, eta horrek ikastetxeak jendez gainezka egotea eragin du. Senpereko kolegio berriak, hein handi batean, leku falta hori arintzeko balioko du. Duela 30 urte baino gehiago, Herri Urrats lehenengoz egin zenean, Kanboko Xalbador kolegioa irekitzeko balio izan zuen jaialdiak, eta aurtan, Senperen bertan bosgarrena irekitzeko balioko du; 2023ko ikasturterako kolegioa eraikita egotea espero dute.

Seaskako presidente Peio Jorajuriak kontatu digunez, azken bi urteak gogorak izan dira, baina Herri Urrats Senpereko lakura itzultzeko irrikatan daude, denbora gutxian antolatu behar izan badute ere. Ipar Euskal Herriko euskalduentzat Herri Urrats "biziki festa berezia" dela dio Jorajuriak, hainbat arrazoi direla eta. Lehenik eta behin, Seaskako kideei eta haien inguruan nola edo hala parte hartu duten guztiei eskerrak emateko festa da, "egindako lan guztia

ospatzeko". Bestalde, euskarari plaza handi bat eskaintzen zaio; Ipar Euskal Herrian euskararen inguruan egiten den festarik handiena da Herri Urrats. Azkenik, Seaskaren aurrekontuaren ehuneko handi bat Herri Urratsen lortzen dute, eta kolegioak eta ikastolak mantentzeko, handitzeko eta berriak egiteko ezinbestekoa dute.

*Azken hamabost
urteetan ikasleen
kopuruak nabarmen
egin du gora, eta
hasieran lehen mailan
sartu zen ikasle olatu
horri kolegiara joateko
ordua iritsi zaio*

Izan ere, Ipar Euskal Herrian egoera berezia dute ikastolek: "Frantziako Estatuan bada lege bat dioena botere publikoek ezin dituztela gure egoitzak finantzatu; hainbat konpromiso hartu dituzte herriko etxe askok, baina hala ere badakigu egoitza berrien finantzaketa gure gain dagoela, eta horrek gure aurrekontuan parte oso handia hartzen du".

Azken bi urteetan lortu dute hala nola mantentzea kanpaina publikoen bidez, baita 2021ean egin zituzten 30 Herri Urrats ttipiei esker ere: "Herriz herri, plaza bakoitzean, ikastola bakoitzak bere forman antolatu zuen Herri Urrats, eta horri esker azken bi urteetan diru mailan gutxi gora behera lortu dugu mantentzea", azaldu du presidentek.

IKASGELAK, GAINEZKA

Ipar Euskal Herrian euskaraz ikasteko eskaria asko handitu da azken urteetan. Jorajuriaren arabera, lehen mailan, gela txikietan, azken hamabost urteetan ikasleen kopuruak nabarmen egin du gora, eta hasieran sartu zen olatu horretako ikasleei kolegiara joateko ordua iritsi zaie. Seaskak dituen lau kolegioek ikasleen edukiera gaintzen dute, eta kudeatzea zaila egiten ari zaie, are gehiago pandemia garaian: "Ziburuko kolegioa 300 ikaslerentzat zegoen pentsatuta, baina egun 350 ikasle inguru daude. Ikasgiletan, irakasleak moldatu egin dira, baina kanpoaldean ezinezkoa bihurtu da denak batera egotea, eta aire-hartzeak txandaka egin behar dituzte. Azken bi urteetan gainera, segurtasun distantzia mantendu behar izan dutenez, zailagoa egin da. Irtenbide bat behar dugu, bereziki Lapurdin ditugun ikasle horientzat guztientzat, eta horretarako behar dugu bosgarren kolegioa Senperen", dio.

Azken kolegioa Baionan ireki zuten 2017. urtean, Kanboko Xalbador kolegioa arintzeko, baina bost urte eskasean berri-



Senperera itzuliko da Ipar Euskal Herriko ikastolen festa. Argazkian, 1999ko Herri Urrats.

ro ere beste bat irekitzeko beharra dute. Bazekiten Ziburu inguruan behar zuela bosgarren kolegioak, Senpereko Herriko Etxeak “biziki harrera ona” egin zien Seas-kako kideei, eta lakuaren ondoan lursail bat eskaini zieten: “Aintziraren ondoan eraikiko dugu kolegio berria; beraz, Herri Urrats egiten den lekuan kolegio bat izango dugu laster, oso sinbolikoa izango da”.

AZTERKETAK, EUSKARAZ

Une berezian dator aurtengo Herri Urrats; enegarrenez, ikasleei debekatu egin diete baxoa eta brebeta azterketak euskaraz egitea. Hainbat protesta eta ekintza egin dituzte komunitateko kideek, baina Bordeleko errektoreak Seas-kari bizkarra ematen jarraitzen du.

Jarrera horren atzean dogma bat da-

goela dio Jorajuriak: “Hizkuntza gutxitu bat gara Frantzian, eta Frantziak ez ditu ezagutzen bere hizkuntzak. Horren atzean dogma bat dago, Frantsesak gorago egon behar duela dioena; are gehiago, hizkuntza gutxituek, euskara barne, beherago egon behar dutela dioena”.

Frantziak dio arazo tekniko eta juridikoak daudela, baina Jorajuriaren ustetan hizkuntza batek duen erabilgarritasuna dago atzean: “Haiek uste dute azterketak euskaraz egitea lortzen badugu, gure hizkuntzak zerbaitetarako balio duela pentsatuko dugula. Eta hori da nahi ez dutena. ‘Hizkuntza bat ikasten duzue, baina ez duzue baliatzen ahalko. Ez baldin bada azterketetan baliatzen ahal, zergatik ikasi?’. Azterketen borroka erabileraren borroka bihurtu da”.

ESKAINITZA ZABALA

Sei gune izango ditu Herri Urratssek, datorren maiatzaren 8an: Araba, Nafarroa, Gipuzkoa, Lapurdi, Baxe Nafarroa, eta Xiberoa. Kontzertu gehienak lehen hiruetan izango dira, eta Lapurdi gunean Artxeroak, bertsolariak eta Nat eta Watsonen kontzertua izango dira.

Kontzertu nagusiak Nafarroa gunean izango dira. 14:00etan agur esatear den Skakeitan taldeak joko du, talde donostiarraren azken birako lehen kontzertua izango da. Jarraian Des-Kontrol taldeak joko du, eta ostean Willis Drummond talde lapurtarraren txanda izango da.

Gune guztietan egongo da jan-edanerako aukera, eta etxeko txikienentzako ikuskizunak ere izango dira. ●

BABESLETTA:




UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

**hasi etxetik eta kalera,
hasi kaletik eta etxera...**

arnasa gara, euskaraz gara!

Pastelak jan ditzatela?



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Paris, 1774ko maiatzaren 10a. Luis XV.a hilda, Luis XVI.a eta Maria Antonieta Austriako artxidukesa Frantziako eta Nafarroako errege-erregin izendatu zituzten. Maria Antonia Josepha Johanna von Habsburg-Lothringen 1755ean jaio zen Vienako Hofburgeko jauregian, Frantzisko I.a Germaniako Erromatar Inperio Santuko enperadorearen eta Maria Teresa I.a Austriakoa enperatrizaren 16 seme-alaben artean azken aurrekoa. Amak haur andana ahalik eta ondoen ezkontzea zuen helburu, eta horretara bideratutako heziketa zorrotza jaso zezaten ahalegindu zen. Maria Antonietak musika, dantza, moda, kantu eta ahoskera eskolak jaso zituen, besteak beste, baina politikan eta ekonomian gerora baliagarriak izango zitzaizkion lezioei ez zieten arreta handirik jarri.

Eta, printzipioz, enperatrizak ezkontza ezin hobea lotu zuen alabarentzat. 14 urte zituela Maria Antonieta Frantziako delfinarekin ezkondu zen: batetik, erregina izango zen eta, gainera, ordurarte elkarren aurka aritutako bi dinastia indartsuen arteko harremana estutuko zen.

Orain badakigu zein izan zen senar-emazteen amaiera, baina Luis XVI.a gillotinatik Maria Antonieta baino lehenago pasa arren, austriarraren lepoa eskatzen lehenago hasi ziren. “Madame Defizit”, “austriar otsema” eta halako ezizenak jarri zizkieten, eta bere jatorria baliatuz hitz joko berezia egiten zuten; “autrichienne” (austrarra) esan beharrean, “autre chienne” (beste txakur emea) esaten zioten. Gortean bereha-



Maria Antonieta pastelez inguratuta. Sofia Coppolaren *Marie Antoinette* (2006) filman.

la egin zituen etsaiak, bere aldekoak ez zirenak baztertu zituenean. Politika-rien artean ere ez zituen lagunak egin, esaterako, Turgot finantza arduraduna kargutik egoztearen eragin zuenean. Edo bere gutizia garestiak asetzeko dirutza xahutzen zuenean.

Baina herritar gehienek gorrotoa piztu zuena esaldi ezagun bat izan zen. Iraultza prozesuaren hasieran, erreginak galdetu omen zuen herritarrek zergatik ari ziren protestan, eta jateko ogirik ere ez zutela esan ziotenean, “*Qu'ils mangent de la brioche*” erantzun omen zuen, pastelak jan zitzaatela, alegia.

Bada, ez dirudi Maria Antonietak sekula horrelakorik esan zuenik. Jean-Jacques Rousseau garaikideak antzeko esal-

di bat aipatzen du *Les confessions* lanean, eta badirudi Luis XIV.aren emazte Maria Teresaz edo Madame de Montespanez ari zela, biak Maria Antonieta jaio baino askoz lehenago hil zirenak. Stefan Zweig biografoak Luis XV.aren alaba batek esan zuela uste zuen, eta guztia erregina austriarraren aurkako zurrumurru kanpainaren barruan kokatzen du. Antonia Fraser historialaria ere iritzi berekoa da, eta gogorarazten du Versaillesko Martxan jendetzak “*Vive le roy*” oihukatzen zuela, emazteari heriotza opa zioten bitartean.

Horrek guztiak ez du derrigorrez esan nahi Maria Antonieta uste baino askoz hobea zenik, errege familiako edo goi nobleziako gainerako kideak baino askoz okerragoa ez zela baizik. ●



Tsunami Atacamako basamortuan

Duela 3.800 urte, 9,5 magnitudeko seismo bortitz batek eta horrek eragindako tsunamiak Txileko kostaldea jo zuten. 4.000 urtez Atacamako kostaldean bizi ziren komunitateak barrualdera bultzatu zituzten tsunamiak, eta beste 1.000 urtetan ez zituzten berriro eremu horiek populatuko.

Diego Salazar arkeologoa buru duen Txileko Unibertsitateko ikerlari taldeak *Science Advances* aldizkarian eman du oraintsu teoria horren berri, eta hipotesiaren fidagarritasuna bermatzeko, geratzen diren frogak aztertu eta modelo matematikoak aplikatu dituzte. ●

HITZALDIAK

Poesiaren erritmora dantzan

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA



Igor Estakona hainbat urteren ostean poesia kritikak egiteari utzi dio "denboraldi baterako". Irudian, hastapeneko eta azkenetako artikulua bana, eta 2009an egindako elkarrizketa batean.

Poesiaren erritmoa segitzea kostatzen zait. Jazz-arena bezala. Ez naiz sekula abila izan poesia irakurtzen, ez naiz eroso sentitzen. Askotan ez bada ere, saiatu izan naiz inoiz testuan sartzen; baina huts egiten dut beti. Nobela-zalea naiz ni. Poperoagoa, ziurrenik, poesia zaleentzat. Nobela aski rockero eta heavy-ak ere badaudela erantzungo nieke nik. Baina neurri batean miresten ditut niri hain zail egiten zaidan zer bait horren eroso irensten dutenak. Igor Estakona ARGIAko kolaboratzailea kasu. Irakurri bakarrik ez, poesia kritikak egiten aritu baita azken hamar urte hauetan astekarian.

Ez da ohikoena poesia kritikak idaztea eta halaxe galdetu diot berari ere, nolatan hasi zen ARGIA lan hori egiten. "Ordurako *Hika* eta *Gara* bannenbilen kritikak egiten eta modu oso naturalean heldu zitzaizkidan ARGIAtik eskaintza", adierazi du eta jarraitu: "ARGIA beti izan zarete poesia-zaleak, arean artistak, gutxienei gustatzen zaizkien gauzen zaleak". Poesia liburuen bi aldeetan jotatzen du: bost poesia liburu ditu idatziak eta irakurri eta kritikatuak hamaika.

Argitaratutako bere liburuen inguruan egindako elkarrizketak jasoak ditu ARGIAk eta tartean ere galdegiten zaio kritikaz. "Nire izaeraren arabera jotatzen dut: ez zait gustatzen gatazkan ibiltzea", adierazi zion ia orain hogei urte Miel A. Elustondori. "Iritzia emateko geroz eta erreserba gutxiago daukat. Horrek ematen dizu askatasun bat idazteko, beti erresposabilitate-tik eta errespetutik, zure gustuei buruz. (...). Lehen uste genuen liburuak kritikatzin ari ginela, eta nik uste dut gehiago kritikatzin ditugula tendentziak, edo estiloak, edo poema motak. Nik kritika batean adierazten nabilena da, bakar bakarrik, liburu bat iruditut zaidala atsegina edo ez. Eta nire gustuen barruan liburu hori dagoela ondo idatzita edo ez. Uste dut behar dela horretan be trebakuntza bat; lehenengo kritiketan galdu egiten zara, baina orain gutxiago", erantzun zion Gorka Bereziartua Mitxelena 2009an.

"Denboraldi baterako erretiroa" dela esan digu idazleak. Zeregin askotan sartuta dabilela eta garai bereagoak heltzean ekingo diola berriz poesiaren gainean esaka aritzeari. ●

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Egundoko lana egiten ari zaretelako. Eta azkenaldi honetan gusturen irakurtzen dudana zaretelako. Zorionak eta aurrera!"


Zalduondoko Oihane

"Alde batetik, euskarazko prentsa babestu nahi dudalako, eta bestetik, kalitatezkoa iruditzen zaidalako."

Gasteizko Olatz

"Euskara hutsean eta egokian idatzitako aldizkari/proiektu bat dela iruditzen zaidalako."

Bilboko Amaia



AGENDA

Txori Urdinak

"Espetxe sistema eta zigorraren kultura: kritikak... eta alternatibak?" izenburupean, liburua aurkeztuko du Zigor Olabarriak:

- 🕒 **Maiatzaren 20an** 19:00etan
- 📍 **Ortzaizte** Menta liburutegia

- 🕒 **Maiatzaren 26an** 19:00etan
- 📍 **Baiona** Epaiska elkarte

LORETIK EDAN-JANA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Baga: egutegiko udaberrian sartu garenenez gero, egun argia gaua baino luzeagoa da. Biga: eguraldiaren batezbestekoa epeldu da. Higa: sasoiko eurite adiskideak urteroko bisita egin digu. Laga: lurra berotu da. $1+2+3+4=10$, ia-ia hamaika borobil amaigabea. Landareekin biribil-biribilik ez dagoenez, beraiek aztertzerakoan hamarretik hamaikakorako бага bakar baten tartea behintzat utzi beharko diogu zalantzari. Zalantza gorabehera, lau baldintza horiek bete direnean, landare askok eta askok loratzeko erabakiari heltzen diote, eta ekin.

Elorri zuria (*Crataegus monogyna*) da horietako bat. Esaera zabaldua da elorri zuria loratu arte ez dela egiatan udaberria etorri. Loraldi horretatik atzera ez dela gehiago izotzik izango eta lasai landatu daitezkeela baratzean udako uzta emango duten landareak: tomatea (*Solanum lycopersicum*), piperra (*Capsicum annuum*), alberginia (*Solanum melongena*), kuia (*Cucurbita pepo*), kuaixoia (*Cucurbita pepo* var. *pepo*), artoa (*Zea mays*), babarruna (*Phaseolus vulgaris*) eta abar. Ez dakit zer duen elorriaren loreak, jende gehienak ez du atsegin bere usaina baina makina bat intsektu polinizatzaile erakartzen du: erle, erlstar, liztor, euli, sirfido... Eta nola ez, horiek



ehizatzen zain izaten diren armiarmak; adibidez, *Misumena vetia*, thomise al-dakorra eta karramarro armiarma. Karramarro, haren tankeran zeharka mugi daitekeelako esaten zaio. *Thomisidae* familiakoa delako thomise eta aldakorra polinizatzaileak ehizatzen ezkutatzen den lorearen kolorea hartuko duelako.

Intsusa ere (*Sambucus nigra*) orain loratzen da. Lore horren usaina ere ez da erabat gozoa, arrea dela esango nuke; gozo puntta badu, baina baita gazitik eta mikatzetik ere. Toki hezetan ugaria da eta, usain nabarmena eta hostaje berri biziaren gainean lore handi zuri-laruzko loraldi bikaina duenez, urrutitik antzematen da non bizi den. Lorea multzo za-

bal zapaletan ematen du eta, horiek ere polinizatzaile ugariren bisitaleku izanik, haien ehiza plaza ederrak dira. Polinizatu eta ernaldutako loreak hazia bideratuko duen fruitua emango du. Intsusa fruitu koxkorak gero eta gehiago ikusten dira jakien osagarri. Gelatinak, marmeladak, dultzeak, edari freskagarriak, likoreak... Gozo puntu ederra dute eta kolore gorri ilun deigarri margotzen dute guztia. Uda amaieran heltzen direnean likorea egin nahi baduzu: litro bat uxualetan libra eta erdi fruta jarri beratzten, nahi izanez gero beste fruitu edo belarren bat gehitu; hilabetera iragazi eta litro erdi ur eta 100-250 gramo azukrerekin egindako karameloa erantsi.

Fruituei itxaron beharrik gabe orain lorearekin egin dezakezu freskagarri bikaina: ondo ixteko moduko 3 litroko ontzi batean sartu 6-8 lore eta zatitutako 3 limoi, 2 koilaratxo legamia fresko eta gehitu 2,5 litro uretan nahastutako 2 limoien zukua eta 100 gramo azukre edo ezti. Gainean utzi hatz pare baten tartea eta itxi. Toki fresko batean eduki, hiru garren egunean iragazi eta hozkailura. Esango didazu...

Lan horiek nekosoak bazaizkizu, errazago: infusioan edan edo frijituta jan. On egin! ●

Fraisoro
eskola



Ate irekiak: Maiatzak 4, 16:00 / Maiatzak 7, 11:00



LANBIDE-HEZIKETA ZIKLOAK

Erdi mailakoak:

LOREZAINZTA eta LOREGINTZA
NEKAZARITZA eta ABELTZAINZTA EKOIZPENA
Berria: ELIKAGAIK ERLDATZEKO TEKNIKARIA

Goi mailakoak:

BASOA ETA NATURA INGURUNEAREN KUDEAKETA

Aurrematrikulazioa: Maiatzak 9-27

Zizurkil, Gipuzkoa 943 692 162 www.fraisoroeskola.eus

HASI DA NAFARROAKO MENDIALDEKO EKOIZLE ETA ARTISAUEN AZOKA IBILTARIA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2019an abiatu zen Nafarroako iparraldean Mendialdeko Azoka Ibiltariaren lehen edizioa. Aurtengoan, hirugarrena hasi berri da, apirilaren 24an Atallun (Araitz) egin zen lehen azokarekin. Cederna Garalur landa garapenerako elkarte, eskualdeko hamar udal, Habelarte baserritar elkarte, elikadura eta kontsumoarekin lotutako hainbat talde eta Plazaola Partzuergo Turistikoa daude ekimenaren antolatzaileen artean.

BEDERATZI AZOKA ESKUALDE ZABALEAN

Araitz, Arano, Areso, Atetz, Basaburua, Goizueta, Imotz, Larraun, Leitza eta Lekunberriko udalerrietan abiatutako planaren baitan kokatzen da azoka ibiltaria. Izan ere, Cederna Garalurren bultzadarekin, elikadura sistema jasangarriaren aldeko dinamizazio plana martxan jarri dute eskualde zabalean, eta azokaz gain, bestelako egitasmoak ere badituzte esku artean: eraldaketarako gune kolektiboa eta zonalde mailako Elikadura Mahaia, esaterako. “Elikadura sistemaren katea osatzen duten eragileen arteko sinergiak sortzea da gure helburuetako bat”, azaldu du Amaiur Unzueta Zorrozueta Cederna Garalurreko mendialdeko elikadura eta dinamizazio teknikariak.



Atalluko lehen azokaren ondoren, datorren asteetan, beste herri askotatik pasatuko da ekimen ibiltaria. Hurrengo hitzordua maiatzaren 8an izanen da Lekunberrin. Ondoren Gorriti (Larraun), Goizueta, Leitza, Latasa (Imotz), Basaburua, Areso eta Beuntzaren (Atetz) txandak iritsiko dira. “Aurreko urteetan be-

zala, elikagaiak eta elikagaiak ez direnak izanen dira eskaintzan, eta azoka bakoitzean 25-30 postu artean egonen dira”, dio Unzuetak. Denetarik topatuko dute hurbiltzen direnek: arrautzak, gazta eta esnekiak, txorizo eta saltxitxoi ekologikoa, ogia, sasoiko barazki freskoak, garagardoa, txokolate artisaua... “Gure inguruko ekoizleak ikusarazten saiatzen gara, baina eskualdean ekoizten ez diren produktu zehatz batzuen kasuan, beste herri batzuetatik ere badatoz zenbait ekoizle”, gehitu du.

URTEOTAKO LANA, PIXKANAKA FRUITUAK EMATEN

Hiru helburu nagusiri erantzuteko asmoz abiatu zuten azoka ibiltaria: toki-ko ekoizle eta artisauen ikusgarritasuna bultzatzea, zuzeneko salmentarako espazioa eskaintzea eta elikaduraren bueltako agente desberdinen arteko sinergiak sortzea. Pozik daude bultzatzaileak orain arte izandako erantzunarekin. “Ekoizleek diotenez, inguruko komertzio eta dendetatik geroz eta gehiago deitzen diete haien produktuak eskatzeko, eta pedagogiari eta kontsumo arduratsuari begira ere lanketa egiten ari gara azoka bidez”, amaitu du Unzuetak. ●



PUNK ARRASTOAK PINTURAN

Etorkizuneko apurketak iraganean

Los Picoletos bikoteak *"Quinquis, macarras y skaters. Rastros del punk en el arte contemporáneo"* ("Kinkiak, makarrak eta skaterrak. Punk arrastoak arte garaikidean") sei saiotako mintegia antolatu zuen 2021eko ekainean BilbaoArte aretoan. Astean bi orduz haien bizitzan garrantzitsuak izan diren erreferente kulturalen panteoia osatu zuten, beraien ibilbide artistikoari zentzua emateko punk kulturaren arrastoa iraganeko arte adierazpenetan bilatuz. Hiru artikuluko serie honetan, arrasto horietan barrena ibiliko gara.

 IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

Norberaren mitologia eraikitzeko emandako pausoen arrastoetan arakatu beharra dago. J. G. Ballard idazle britainiarrak bere historia pertsonalean eman diren haustura momentuak erabiltzen zituen mitologia pertsonala berridazteko, bere bizitzari zentzua emango zion kontakizuna josteko. Beste hainbat idazlek antzerako lana egin dute. Adibidez, Greil Marcusek *Lipstick Traces: A Secret History of the 20th Century* (Ezpain-margo arrastoak: XX. mendearen historia sekretu bat; Harvard University Press, 1989) lan klasikoan punk kulturaren mitologia eraiki zuen honen arrastoak XX. mendeko arte adierazpen ugaritan bilatuz. Antzeko zerbait egin zuen Servando Rocha idazle kanariarrak *La facción canibal: una historia del vandalismo ilustrado* lanean (Fakzio kanibala: bandalismo ilustratuaren historia bat; La Felguera, 2012). Saiakera horrek idazlearen obsesioetan barrena egindako bidaia aurkezten du antropofagia kulturalako

ariketa baten bitartez. Biek ala biek tradizio ezkutu bati buruz hitz egiten dute, mendeetan zehar lur azpitik eta eskuz esku bidaia duen suari buruz.

Bi idazle horiek egindakoa emulatu nahi izan dute Los Picoletos bikote artistikoa osatzen duten Dante Litvakek eta Fabro Tranchidak. Punkaren identitatean berezkoak diren ikur eta kodeak –probokazioa, jarrera oldarkorra, eskandalua, abangoardia kulturala, eta abar–, haien totem artistikoetan bilatu eta horiekin kontakizun bat osatu dute. Beraiek markatutako bidea jarraituko dugu hiru ataleko erreportaje-sorta honetan, bide bazterrean altxatutako mugarriek esan behar digutena entzuteko.

OLIO-PINTURA ARRASTOAK: PUNKAREN AZTARNAK XIX. MENDEAN

Bide orok du hasiera bat, askotan iluna izan daitekeena, mapetan agertzen diren seinaleak ez baitaude argi. Lehenengo

atal honetan punkaren aztarnak bilatu-ko ditugu XIX. mendeko pintura garaikidean. Ibilbide honen lehen mugarria Gustave Courbet margolari frantziarraren *Munduaren sorrera* margolana da. Emakume* baten genitalak lehen planoan aurkezten dira oso modu errerealistan eta pubisean ile ugarirekin. 1866 urtekoa bada ere, lana mende luze batez ezkutuan egon zen eta lur azpiko ibilbidea egin zuen; naziek, Armada Gorriak, baita Jacques Lacanek ere beraien eskuetan izan zuten. 1995etik aurrera Parisko Musée d'Orsay-n ikusgai dago. Margolana apurtzailea izan zen emakume baten biluzia hain modu errerealistan margotzeagatik. Ordura arte hainbat trikimailu erabiliz erakusten ziren, jainkosak bezala aurkeztuz edo arrazializatuz –arte garaikidean emakumeen gorputza gauza gisa nola aurkeztu izan den erakusten du horrek–. Baziren giza biluzien bilduma pribatuak, baina gorputza bere naturaltasunean eta hain modu esplizituan erakustea ez zen

Orlan artistaren
'Gerraren jatorria'
lanak Gustave
Courbeten
'Munduaren
sorera' margolana
berrinterpretatu zuen.



ohikoa. Courbeten lan horrek hautsak harrotu zituen garaiko burgesia puritanoaren baitan eta apurketa ekarri zuen arte garaikidean ordura arte nagusi zen tradizioarekin. Baina artelan askorekin gertatu bezala, garai batean abangoardista eta apurtzailea zena, mugimendu kultural berrien kritikaren jomugan egon daiteke. Hori izan zen Orlan artista frantziarraren asmoa 1989an Courbeten koadroaren berrinterpretazioa egin zuenean. Emakume honen margolanak *Gerraren jatorria* du izena eta Courbeten koadroaren formatua imitatuz, zutitutako zakil bat erakusten du, heteropatriarkatuaren biolentzia jomugan jarritz.

Olio-pinturaz egindako margolanak ez ezik, grabatuak ere erabili zituzten artista askok herri kultura transmititzeko euskarri bezala. Teknika hori erabili zuten artisten artean bada kasu aipagarri bat: mundua karga esoteriko handiarekin ikusten zuen William Blake artistarena. Bere obra oso mitologikoa eta pertsonala da aldi berean. Ingelesak bere olerkiak idatzi eta ilustratzen

zituen, baita Bibliaren pasarteak bere irudipenekin berrinterpretatu eta ilustratu ere. Munduari begiratzeko bere moduari, gainazaletik haratago ikusteko gaitasunari, "begirada bikoitza" deitzen zion. Blakeren esanetan, begiekin baino, begietan barna begiratu behar zitzaion munduari. Ameslaria izan zen eta irudikatu zituen munduak profetikoak izan ziren, baita inspiratzaileak ere gerora bere figura aldarrikatu duten hainbat artistarentzat. Irmoki defenditzen zituen bere sinismenak eta gogor jo zuen arte ofizialaren eta *establishment*-aren aurka. Hori dela eta, Blakeren eragina ez zen momentuan nabaritu. Bere profeziak eta mundua ikusteko erabiltzen zuen begirada lur azpian mantendu ziren hurrengo mendearen bukaeran William Butler Yeats irlandar poetak haren figura aldarrikatu zuen arte. Ordutik mugimendu artistiko eta kontrakultural guztietan Blakeren figura presente egon da: surrealismoan, *beat* mugimenduan, psikodelian, hippyen artean, punkean, baita Alan Moore eta Grant Morrison

komikigileen lanean ere. Euskal Herriko Vulk musika taldea izan da bere hitzak erabili dituenetako bat. *Ground for Dogs* (Meyo Records, 2018) lanean *A poison Tree* olerkiaren letra erabili zuten izen bereko abestian. Lan bereko hurrengo abestia ere, *Behiaren begirada*, guztiz blaketarra da.

Blakeren garaikidea izan zen Francisco de Goyak grabatu eta ur-bortitzez irarritako lan ugari egin zuen. Poema txikiak ziren, bere mitologia pertsonala osatzen lagundu zutenak. Baina Goyaren obran bada zirrara sortzen duen lan sorta bat, bitxitasunagatik eta izugarritasunagatik: pintura beltzak. Bere etxeko hormetan margotu zituen hamalau lan dira. Denborak ezabatu bazituen ere, berreskuratu egin dira eta gaur egun Madrilgo Prado Museoa haiei propio eskainitako areto batean ikusgai daude. Gaiei dagokienez, interpretazio ugari dago, baina oro har, Goyak zahartza-roari, heriotzari eta gizadiarekiko zuen deslilurari buruz hitz egiten du, munduaren munstrokeria agerian utziz. La-

nek izugarrizko indarra dute eta darien iluntasunagatik eta ezkortasunagatik artistaren begirada bereganatu dezake ikusleak.

Europatik kanpo, Japonian, *ukiyo-e* grabatu estiloa sortu eta garatu zen XVII-XIX. mendeetan. Zuraren gainean egiten zen eta herri kulturaren eszenak irudikatzen zituen. Egilerik garrantzitsuenetako bat, behintzat arte garaikidean arrasto handienetakoa utzi duena, Katsuhika Hokusai izan zen. Marra soilekin lan egiten zuen artista japoniarrak, argi-itzalen errekurtsorik gabe, bere ustez argia elementu artifiziala baitzen, gauzen benetako eszentzia distortsionatzen zue-na. Hokusai ez zuen arrakasta handirik lortu bizirik egon zen bitartean, baina XIX. mendearen bigarren erdialdean bere lana Europan ezaguna izaten hasi zen eta Van Gogh, Gauguin eta Toulouse-Lautrec margolariak liluratu zituen. Bere obra-rik ezagunena *Kanagawako olatu handia* (1830-1833) bada ere, aipatu beharreko grabatu ezagun bat *Arrantzalearen emaztearen ametsa* (1814) da. Japoniar grabatu erotikoaren tradizioan ohikoa zen gai bat jorratzen du: gizakien eta olagarroen



'Arrantzalearen emaztearen ametsa' lanak XIX. mendeko artista europar askoren interesa piztu zuen.

XIX. mendetik XX.era pasatzean ugaritu egin ziren probokatzailleak ziren arte-adierazpenak

arteko sexu-harremanak. Hokusairen grabatu horretan olagarro batek aho-se-xua praktikatzen dio emakume bati, beste batek ahoan musu ematen dion bitartean. Emakumeak begiak itxita ditu, olagarr-erok ez bezala, honen amets erotikoa dela adierazteko. Ilustrazioaren inguruan idatzita dagoen testua emakumearen eta olagarroen arteko elkarriketa da. Ia bi mende geroago, 2002. urtean Larry Clark zuzendariaren (*Kids*) eta Harmony Korine gidoilariaren (*Gummo*) Ken Park filmaren afixak omenaldi txiki bat egin zion Hokusairen grabatu famatu horri.

Esan bezala, Hokusai eta beste hainbat japoniar artistaren grabatuak Pariseko giro bohemioan ezagunak egiten hasi

ziren XIX. mendeko erdialdean. Horien eragina agerikoa da hainbat artistaren-gan, adibidez, Paul Gauguin margolari eta eskultore frantziarrarengan. Bere *Sermoi ondorengo irudipena* (1888) horren adibide ona da. Argazkigintza hastapenetan zegoen garaian, munduaren irudikapen guztiz errealista egiteko aukera gero eta hurbilago zegoenean, parroikia batek egin zion enkarguan, perspektiba guztiz hautsi eta kolore biziak erabili zituen Gauguinek. Lan horrengan Hokusairen *Sumo gerlariak* obrako aztarnak aurkitu daitezke. Bada bi lan horien aztarnak ikusten dituenik punk mugimenduak ezagun egin dituen *pogo* dantzaldietan ere. Izaera bortitza duen dantza mota hau ikusleen arteko bultzada eta saltoetan oinarritzen da.

Mende aldaketarekin apurtzaileak eta probokatzailleak ziren arte adierazpenak ugaritu ziren. Guztien artean Egon Schiele artistaren lan oparo eta transgresorea aipatu beharra dago. Espresionismoaren izen ezagunenetakoa den margolari honek Vienan hasi zuen bere ibilbidea, baina azkar nazkatu zen hiri ilun eta puritano hartaz. Bere obran erretratuak eta gorputz biluziak nagusi izan ziren. Baina gorputz biluzi horiek ez zuten erre-presentatzen ordura arte ohikoa zen edertasuna. Gordinak ziren, oso, baita marraztu zituen sexu eszenak ere. Emakumeak oso modu indartsuan eta botere-tsuan irudikatu zituen. Giza gorputzaren irudikapenari dimentsio psikologikoa eman zion artista austriarrak; zorabioa

eta norberaren gorputzarekiko deserri-tze sentsazioak sortzen zituen. Gurean, punk jarreratik urrun ez dagoen *Erraiak* (Elkar, 2014) liburuaren azalerako Egon Schieleren irudi bat aukeratu zuen Danele Sarriugartek. Nobelan norberaren gorputzaren gaineko kontzientzia eta horren adierazpena oso presente daude, Schieleren obran bezala.

XX. MENDE HASIERAKO ABANGOARDIA ARTISTIKO ETA POLITIKOAK

Andaluziako La URSS punk taldeak "Hay incendios que iluminan horizontes tras las ruinas" (Badira suteak hondakinen atzean dagoen zerumuga argitzen dutenak) abesten du *Nada es sagrado* abestian. Punk politizatuaren bi aurpegiak ondo deskribatzen ditu esaldiak: alde batetik punkaren pultsio suntsitzailea; bestetik utopiarekiko fedea eta suntsi-keta horren izaera sortzailea. Abestia *Maravillas del mundo* (La Corporación, 2015) diskoan argitaratu zuten. Bada lan horretan, *Manifiesto futuro* abestian, antzerako esanahia duen beste esaldi bat: "Un nuevo sol se erigirá sobre el cadáver de la humanidad" (Eguzki berri bat goratuko da gizadiaren hilotzaren gainean). Abestiaren izenak keinu bat egiten dio XX. mendearen hasieran argitaratu zen testu politiko eta artistiko garrantzitsu bati: *Manifestu Futurista*.

1909an argitaratu zuen Filippo Tommaso Marinetti artista italiarrak *Manifiesto futurista*. Testu hartan aldarrikatu

zuen “arriskuarekiko maitasuna, energia eta beldurgarritasunaren ohitura [...] Ausardia, adorea eta errebolta gure poesiaren funtsezko elementuak” zirela. *Manifestu futurista*-n aurrera egin ahala ideia ilunekin egingo dugu topo: “Gerra –munduko higiene bakarra–, militarismoa, abertzaletasuna [...] Edozein eratako museo, liburutegi eta akademiak hautsi nahi ditugu, eta moralismo, feminismo eta behekeria oportunista edo utilitarista guztien aurka borrokatu”. Manifestuaren izaera misoginoa agerikoa da, beraz, ez da harritzekoa futuristen artean emakume bakarra aurkitu izana: Valentine de Saint-Point, diziplina ugaritan aritutako artista. Frantziar jatorriko emakume honek *Emakume futuristaren manifestua* idatzi zuen 1912an, Marinettiren idazki misoginoaren aurka oso modu bitxian egiteko: “Gizakia erdipurdikoa da. Emakume gehienak ez dira gizonak baino hobeak, ezta txarragoak ere. Berdinak gara. Guztiok merezi dugu mespretxu berdina”.

Argitaratu zen garaian baino, urte batzuk geroago izan zuen arrakasta Marinettiren testuak, 1920ko hamarkadan hain zuzen, Gerra Handia eta mundu mailako gripe pandemia amaitu berriak



Valentine de Saint-Point, 'Emakume futuristaren manifestua'-ren egilea.

zirenean. Gizartean, bereziki burgesia-ko kideen artean, bizi pultsioak gogor jo zuen eta hedonismoarekiko jarrera kamikazea hedatu zen. Kontsumo gizarte kapitalista izan zen erabili zuten erregaia eta gizarte tradizionalaren konbentzioak haien jomuga. Futurismoak diziplina ugaritan eragina izan zuen eta anarkista eta sindikalistei matxinadarako aliantza proposatzen zien. Beraien emanaldietan

publikoaren aurka gogor egiten zuten eta asko borroka gogorretan bukatzen ziren. Marinettirentzat, arteak oldarkorra, biolentzia eta bidegabea izan behar zuen. Ezkerreko mugimenduetan eta abangoardiako artean ez ezik, futurismoak 1920ko hamarkadako bestelako mugimenduengan ere eragin zuen: Europa odolez eta heriotzaz bete behar zuten totalitarismoen artean. ●

Maiatzekoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?

- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



LIBURUA

Habeak habia



DANI BLANCO

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA

EIDER RODRIGUEZ

SUSA, 2021

AMAIA ALVAREZ URIA

Liburuekin bidaiak egiten ditugu, gure barrunbeetara eta gure irakurketetara eramaten gaituzte maiz. Kasu honetan aita-alaba batzuen arteko harremanaren eraikuntza dugu eta, eguneroko, zerrenda, argazki, dei eta gutunak dira horretarako erabili diren materialak. Aitaren alkoholismoa dugu beraren eta ingurukoen bizitzak goitik behera baldintzatuko dituen.

Familiaren inguruan gogoeta egiten dihardu Eider Rodriguezek azkenaldiko bere lanetan eta oraingoan hurbildu da gehien muinera, Miren Agur Meabek urratutako bideari jarraika, arnasa sakon hartu eta buruz murgildu da. Protagonistak bere aitaren gaixotasunari eta heriotzari begiratzen die, hil ostean isiltasuna hitz bilakatuko da eta distantzia laztan.

Alkoholismoaren gaia ere erdigunean

agertzen da, agerian dagoen baina ezkutan gorde nahi den sekretu publikoa. Gogoeta eragin dit liburuak eta larritu egin naiz gure kultura eta sozializazioa zenbateraino blaitzen duen pentsatzean eta zenbat alkoholiko ezagutzen dudana zenbatzean.

Gogorarazi dizkidan liburuen artean *Fun home* dugu, Alison Bechdelek bere familiari eta bereziki aitari buruz sortu zuen komikia; Jorge Manriqueren *Coplas a la muerte de su padre*; Arantxa Urretabizkaiairen *Saturno* nobelako protagonista alkoholikoa; edo Uxue Alberdiren *Jenisjoplineko* garaia eta giroa.

Izan ere, azken 40 urteotako historia ekartzen digu liburuak, zehazki Errenteria/Oreretakoa, 80ko hamarkadatik honako gatazka politikoa eta giro soziala. Liburu hau memoria ariketa,

dolua, eta maitasun-gutuna da aldi berean. Euskaldun izaerari buruzko saia-keratxoa ere bai, zer garen eta zer ez garen aipatzen duena.

Baina azpimarragarriena agian hizkuntzari egiten dion aitortza da. Hitza sendagai delako ideia. Norberaren mina bideratzeko, bakoitzaren egiaz jarduteko, hitza lagun da. Hitzek esan nahi dutena eta esaten ez dutena. Hizkuntza desberdinetan zentzu bila dabil. Bar-bar hizkerari eta isiltasunari ere leku egiten die. Bizitza eta heriotza hizkuntza arazo ez ote diren planteatzeraino.

Zintzotasuna bilatu du Rodriguezek bere lehen nobelan, horregatik erakusten dizkigu literatur artefaktua eraikitzeke erabili dituen materialak. Familia den etxearen habeak habia bihurtu nahian egindako bidea. ●



MUSIKA

Verdi epikoa



E. MORENO ESQUIBEL

OLBEk antolatutako Verdiren *Alzira* opera. Bilbao Sinfonietta Orkestra.

Zuzendaria: Daniel Oren. Bilbao Operaren Abesbatza. **Zuzendaria:** Boris Dujin. **Bakarlariak:** Carmen Solís (sopranoa), Sergio Escobar (tenorea), Juan Jesús Rodríguez (baritonoa), David Legares (baxua), Josep Miquel Ramón (baritonoa), Vicenç Esteve (tenorea), Maria Zapata (sopranoa) eta Gerardo López (tenorea). **Eszena zuzendaria:** Jean Pierre Gamarra.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

OLBEk azken urteotan egin duen proiekturik interesgarrienetako bat *Tutto Verdi* izenekoa izan da. Verdi musikagilearen opera guztiak antzeztu dira ziklo honetan, salbuespenik gabe. Eta opera horietako azkena da orain aipatuko duguna: *Alzira*.

Arrazoi askorengatik merezi zuen OLBEren hitzordu honetara etortzea. Alde batetik, aipatutako zikloaren itxiera zelako; bestetik, Verdiren harribitxi txiki hori (bere ekoizpeneko opera laburrenetako bat) ez zelako Espainiako Estatuan 1854tik antzeztzen. Eta, egia esan, zaila egiten zaigu ulertzea zergatik baztertu den xarmaz beteriko obra hau, libreto epikoa, musikaltasun atsegina eta aria nabarmenak dituen.

Voltaireren *Alzire, ou Les américains* obran oinarritutako tragedia lirikoa da. Ekintza Perun kokatzen da eta herri indigenak Erregeordetzaren garaian na-

gusitasun politiko, erlijioso eta kulturalarekiko duen erresistentzia ilustratzen du, bertakoek indar inbaditzaileei aurre egiteko eta *Alzira* printzesa eta bere aita Ataliba askatzeko nola bat egiten duten kontaktuz.

Kontakizunean, Zamoro inkak eta Gusmano tirano espainiarrak elkarren aurka egiten dute. Zamoro Alzirako maitatua eta Peruko tribuen burua da, eta Gusmanok protagonistarekin ezkondu nahi du, kosta ahala kosta.

Alzira protagonistak interpretazio zoragarria izan zuen Carmen Solís sopranoaren eskuetan, hasieran iragarritako Hui He soprano txinatarraren ordeiz. Oso une nabarmenak izan zituen: bigarren ekitaldiko *Riposa, in suo dolor vegliante* cavatina, edo Zamororekin egindako due-toa *Chi fia? Ah! L'ombra sua...*; sinesgarritasun dramatiko handia, eta ahots-tonu dotorea eta pertsonala erakutsi zituen.

Sergio Escobar tenorea behetik gora joan zen. Lehenengo ekitaldian segurtasun falta txikiak sumatzen bagenituen ere, bigarren eta hirugarren ekitaldietan bere ahotsaren irmotasun osoa hedatu zuen. Sendo.

Juan Jesús Rodríguez baritonoak Gusmano bikaina egin zuen. Nabarduraz betea, ahotsa bikain menderatua eta bere paperean oso sinesgarria. *Quant' un mortal può chiedere* aria nabarmenduko nuke, edo amaiera bikaina, barkamena eskatzen duen momentua, hunkigarria benetan.

Aipamen berezia merezi du Bilboko Operaren Abesbatzak, opera honek dituen abesbatzen numero distiratsuetan puntu-puntu egon baitzen. Eta Bilbao Sinfonietta Orkestra, Daniel Orenen gidaritzapean, ahots lana dotoreziaz azpimarratzen jakin zue-na. ●



20 urteko berantari aurrea hartuz

 AMETS ARANGUREN

Aurkezipena baino bi ordu lehenago heldu da lan talde jendetsua dena muntatzera. “Baina, aber, tipo bat da rapeatzen eta DJ bat bere atzean-edo eta listo, ez? Zer muntatu behar dute hemen ba?” pentsatu du nire garun batzuetan erabat osatu gabeak. “Amets, ixo ratu batez” erantzun dio horri burmuinaren zati onak.

Dozena bat urtez 2Zio taldearekin aritu ondotik bakarka dabil egun Odei Barroso. ØDEI izena daraman proiektua bakarkakoa bada ere, raperoak berak azaldu du lan talde sendoa daramala atzean (edo ondoan), oholtzan ikusgarri direnak eta honetatik kanpo dabiltzanak dituela oinarri. Jo Olascoaga lagunaren presentzia azpimarratu du Barrosok, “nire itzala dela esan izan didate noiz-bait eta nik, itzala baino, nire argia dela erantzuten dut”.

Gaurkoa ez da kontzertua izan, asko horren gosez geratu bagara ere. Diskoa aurkeztera heldu da Barroso. Taburete

batetik azaldu ditu autoekoizpen lan berriaren nondik norakoak LABA beteen ikusi dugun astelehen buruzuriz. “Rap adiktu bat naiz eta ez da broma, dosi bat behar dut X denboratik behin ongi sentitzeko” bota du serio raperoak. Hamaika gako eman du horren ondotik. “20 urteko beranta dugu, adibidez, Frantziako rap giroarekin konparaturik”. “Rapa ez da 'gure' kontsideratu urte luzez”. Konplexuak, autentikotasunaren ausia eta beste batzuk.

Baionako kapitaletik Iruñeko kapitalera heldu da *Terapia*, ke artean raparen forma desberdinak zabaltzera. Diskoaren bitartez bere barrura sartzeko aukera badela aipatu du Barrosok eta guri, eskaini dituzten lau kantekin, eman digu barru bete hori zirrikitu batetik ikusteko aukera. Aurkezpenak *Ni ta bera*, *Ondoa* eta *Zer nahi genuen* kanta zituen planeatuak, baina “beste bat” oihuen ondotik eman dute *Ene lurretatik*, lehen aldiz jendaurrean. Mezu bat jaso zuen Barrosok

'TERAPIA' DISKOAREN AURKEZPENA

NOIZ: Apirilak 25

NON: Laba (Iruñea)

azken kanta horren harira. Errepikan (ez dakit rapean errepika hitza den egokiena) “Ene herria ez da 64” dio kanta eta jasotako mezuan horren inguruko galdara egiten zioten, ea zer zen 64. Hain oinarritzkoa den erreferentzia hori zer den azaldu behar izateak amorrarazten du urruñarra. “Iparralde” eta “hegoalde” hitzak maite ez baditu ere, “iparraldeko” jendeak “hegoaldean” pasatzen den guztia berri eduki behar izateak haserretzen du, alderantziz ez baita hala. “...nola heldu naiz ni honaino, 'egozentrismo' hitza 'h'-rekin idazteraino” kantatzen du *Periferiak* kantan.

Terapia diskoko Odei betiko Odei da, baina berdina zaiona besteek zer esanzen duten. Rap lagunak gabe hezi bazen ere, trap eta drill kutsuko 15 kanta biltzen dituen lana kaleratu duen *beat-maker*a da orain. Diskoaren izenak ez du bigarren bueltarik behar ulertua izateko, *Terapia* egitea terapia egitea izan da, besteak beste, urruñarrarendako. ●



Hitz gezidunak

Gaia: Lekeitio

1



SANTIAGO PEREZ

GANTZAGI KOILARAZ HARTUTAKO KANTITATEA	↓	ANITZ ILLON MEN- DIZERRAKO MENDATEA	↓	ARDIK ZAITZEN DITUENA LEKU ATZIKIA	↓	UKOAK BARAZKI HOSTOTSUA	↓	EDANARI ZALETASUNA DIONA ANPEREA	↓	ASIAKO HERRITAR
ARGAZKI 1 NAFARROAKO UDALERRIA	→							ARTSENIKOIA ZILARRA	→	
PARÉ UGAZTUN BASATI	↓	PIXKA, PITIN BAT ARGAZKI 2	↓	ZALDI DEIADARKA	→					
				BOKAL ERRE- PIKATUTA HARREMANA, ERLAZIOA	→	ARRAZOIZ ESANDAKOA KEMENA, BALOREA	→			
PORTU BOBORKA	→			ERREPIKA- TUZ, NOIZEAN BEHIN BIHOZBERA	→			ZIRKONIOA ZERGA EZAGUNA	→	
										URREAREN IKURRA
GABEZIA	→	ELEMENTU KIMIKOA FERIA, AZOKA	→			HARAGIA ORBAN TXIKI	→			
				OPTIMISTA EMAKU- MEZKO JANTZI	→			ZUHUR BAI ZERA!	→	
ANTZA, FORMA AITOR- ENTZULE	→			HONDARRA LAUREN- TZIOA	→					
						PAUSALDI (ALDERAN- TZIZ)	→			
NAFARROAKO HERRIA	→							HAMAR ERROMATAR ZENBAKIZ	→	

2



Sudokua


BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

					9		1	5
9						3		
5	1			8	3	4		6
6		3	9		1		8	
7			2		4		3	1
	9			3			5	
4				9	2	1	6	
2	6		4			5		3
					6	2	4	

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Zartako, ukaldi.
2. Oinarrizko jangaia.
3. Zerrenda.
4. Gizonezko izena.
5. Gaia, materiala.



EBAZPENAK

6	4	2	9	7	5	3	1	8
3	7	1	5	8	6	9	2	4
8	9	6	3	5	4	7	2	1
1	9	4	8	3	7	6	5	2
7	5	8	2	6	4	9	3	1
4	3	6	1	7	8	5	2	9
5	1	2	7	8	3	4	9	6
9	6	1	4	5	3	2	7	8
3	4	7	6	2	9	8	1	5

5x5:

		X	N	E	R	V	P	Z	V
		T	A	I	E	R	O	T	I
		A	R	V	H	E	T	I	E
U	Z	R	O	K	I	B	V	Z	E
A	L	A	K	O	A	O	I	N	E
		A	B	A	N	I	R	O	B
R	Z	N	A	I	D	A	V	I	K
V	I	G	E	V	V	V	V	I	G
I	A	R	I	V	Z	P	U	R	A
S	A	V	Z	T	N	U	S	I	
A	D	A	K	A	V	L	I	O	K
		E	U	A	P	K			

Ainara Sánchez Roca

DROGA KONTSUMO
SEGURURAKO ARETOA



NARKOSALAN, NARKORİK EZ

“Hau 2003an zabaldu zenean, batez ere ‘narkosala’ izenez zen ezaguna, eta gaur egun ere, batzuetan, hala esaten diogu guk geuk ere. Arazo bat daukagunean, gaindosi bat adibidez, eta Osakidetxari deitu behar diogunean anbulantzia bat eskatzeko, geure burua identifikatzeko ‘narkosala’ esaten dugu, laburtzearren, eta haiek berehala jakiteko nor garen, benetako izena emanda beti ez dute-eta jakiten. Baina beti esaten dugu izen hori ez dela egokia. Izan ere, hemen barruan ez dago narkorik, hau da, droga trafikatzailerik handirik, estatusa eta diru asko daukaten horietarik. Batzuetan, mespretxuz erabiltzen da ‘narkosala’ hitza, eta hemen pertsonak daude”.

“Gaur egun heroina gutxi dagoela esanagatik, errealitatea bestelakoa da”

Droga-mendekotasunaren alorreko programa asko tren-geltokien ondoan sortu dira, Ainara Sánchezek (Sestao, 1983) dioenez. Hori da, halaber, Bilboko Anden-1 Mendekotasunen Arreta Zentroaren kasua; izan ere, trenbide bat irudikatu dute barruan, geltokiz geltoki droga uztera eraman dezakeen bidea. Aste gutxi batzuk daramatza bertako koordinatzaile gisa Gizakia Fundazioko gizarte-hezitzaile honek.

 UNAI BREA  HODEI TORRES

Funtsean, profesionalen begiradapean eta segurtasunez droga kontsumitzeko lekua da hau. Zein da honelako aretoen historia? Europan 80ko hamarkadan sortu ziren, heroina AEBetatik sartu eta urte batzuetara. Lehen aretoa Suedian ireki zen; arazoak zeuzkaten, hemen bezala: jendeak kalean hartzen edo injektatzen zuen droga, gaixotasunak, alarma soziala... Pentsatu zuten egokia izango zela leku bat sortzea, baldintza jakin batzuetan droga hartzera joateko: higienarekin, medikuekin, injektatzeko laguntzarekin... Kontsumoa hain kaltegarria ez izateko. Handik Europa osora zabaldu zen ereduak, eta gaur egun horrelako 78 daude. Hau 2003an zabaldu zen, Munduko Medikuen ardurapean, eta 2014tik guk kudeatzen dugu. Espainiako Estatuan hau eta Bartzelonakoa besterik ez daude.

Nola igotzen da norbera tren honetara? Erabiltzaileak beren kabuz etorri ohi dira?

Hona etortzeko, pertsona batek bi gauza besterik ez ditu behar: adinez

nagusia izatea, eta heroina edo kokaina injektatzea edo inhalatzea. Edo gauza biak. Ezin da inor sartu porru bat erretzeko, edo anfetamina hartzeko. Gaur egun behintzat, hala da. Eta etortzen direnak, normalean, beren kabuz etortzen dira. Baina kalean ere lan egiten dugu, eta kontsumitzaileak ikusten ditugunean geure burua aurkezten dugu: badakizu areto hau dagoela? Batzuek ez dakite-eta. Oso zuhurak gara, batzuetan zuhurregiak, auzokideak ez kezatzeko, eta batzuetan ez dakite non gauden, Bilbon honelako areto bat dagoela jakin arren. Bestalde, administrazioarekin lan egiten dugu eta osasun zentroetara joaten gara, “hemen gaude” esatera. Askok pentsatuko dute hori eginez kontsumitzera deitzen ari garela.

Ez da erraza izango droga kontsumitzaileen zer portzentaje etortzen den kalkulatzeko.

Oso zaila da. Guk dakiguna da hona, zazpi urte hauetan, 1.063 pertsona etorri direla. Gutxienez behin. Asko da.



“Aretoa ez irekitzeko zioskuen auzokide batzuek, eta horrela droga hemendik joango zela. Utopia da hori”.

Begiradapean kontsumitzera etortzen dira. Zer esan nahi du “begiradak”?

Lehen aldiz etortzen direnean, denek egin behar dute elkarrizketa bat –edo gutxienez sei hilabete eman badute etorri gabe–. Arauak esaten dizkiegu, eta arau sinpleak dira, baina oso garrantzitsuak, oso irmoak gara horiek betearazten, bestela hau Brooklyn izan daiteke. Batetik, esan bezala, 18 urte eduki behar dituzte gutxienez. Bestetik, ezin da ezer kontsumitu kontsumorako geletatik kanpo –ez duzu drogarik ikusiko ez pasilloan, ez komunetan...–. Bi gela daude, bata injeztatzeko eta bestea inhalatzeko. Ez dugu erasorik onartzen, ez fisiko ez ahozkorik, ez pertsonen ez materialen kontra. Kolpe bat mahai gainean jotzen duena kalera doa aldi baterako. Eta hori errespetatzen dute.

Zergatik heroina eta kokaina bakarrik?

Galdera ona. Heroinaren arriskuak ondo jakitun gara denok, eta badakigu kokainarekin ere beste arazo larri batzuk edukitzakegula. Beste droga batzuekin ere

bai, baina... Injeztatuta edo erreta, hori da gakoa. Hasieran, ezbaian egon ginen erretzeko gela beharrezkoa ote zen...

Barkatu, heroinaren arriskuak ondo ezagunak direla esan duzu. Xiringa partekatzea da handiena?

Handiena gaindosia da, eta bi minutuan hiltzea. Horregatik, kantitatea eta kalitatea gainbegiratzen dira. Laginak eramaten ditugu EHUr, hitzarmen bat daukagu haiekin; hemen erreazio arrarorik ikusiz gero, droga bidaltzen diegu, azter dezaten.

Eta inhalatzen bada, hori ez da gertatzen?

Hala da. Eta batzuek esaten zuten gela hori ez zela behar, ez zegoelako hainbesteko arriskurik. Baina kontua da kokaina erretzeko, oinarri bat prestatu behar dela, “kozinatu”. Hemen, Bilbon, eta Iberiar penintsulan, oro har, oinarri hori amoniakoarekin egin ohi da. Eta toxikoa da. Guk esan genuen beste era batera egingo genuela, bikarbonatoarekin, eta haiei ere horrela egiten erakutsiko geniola, baina hasieran guk ere ez

genekien prestatzen, nola edo hala ikasi genuen. Eta hau da amoniakorik erabiltzen ez den Europako gela bakarra. Bestalde, heroina edo kokaina gaindosia baldin badago, zerbait egin dezakegu, baina beste droga batzuen kasuan –metanfetaminak, anfetaminak...– ezin dugu eman arreta egokirik. Gaur egun, behintzat.

Zein da erabiltzaileen profila?

Sektore honetan ohi den legeaz, askoz gizon gehiago dago. Normalean emakumeen portzentajea %15 ospetsuaren ingurukoa izaten da. Iaz, esaterako, %14koa izan zen. Batez besteko adina, berriz, 46 urtekoa da. Baina badaukagu 18-19 urteko jendea heroina hartzen.

Ez omen zegoen heroina askorik, honezkero...

Beti esaten da ez dagoela, hori esanda arazoa desagertuko delakoan. Baina errealitatea hau da. Hemen xiringak trukatzeko programa daukagu, eta, kopuruak, noski, 80ko hamarkadakoak baino txikiagoak dira, baina hala ere iaz 80.000 xiringa inguru eman genituen. ●

Sergei, 45 urte, lan bila

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Sergei gizajoari bizitza ederki izorratu dio gerrak. Eta ez da Ukrainan bizi e, Novosibirsk-eko da, Kievetik 3.957 kilometrora dagoen hiri siberiar batekoa. Trafiko askorik gabeko egun batean 46 ordu gidatu beharko lituzke Ukrainako hiriburura kotxez iristeko –datu hori begiratu egin behar izan dut, eskerrak Trippy.com webguneari, beste mota bateko bidaiak iradoki arren, errepidez egin daitezkeenak planeatzeko ere oso ondo dago-. Sergeirentzat, beraz, goiz jaiki eta Lada Niva hartuta etxetik Kieven lan egitera joatea ez da oso aukera errealista. Eta bizi den hirian berriz, inork ez dio lanik eman nahi. Hori gertatzeko arrazoia, Sergei gizajoaren abizena da: Zelenski.

Italiako *Corriere della Sera* egunkarian irakurri dut haren historia pasa den asteburuan: “Ezin dut zoritxar handiagorik imajinatu”, azaldu du 45 urteko elektrikari honek, gaur egun Errusia osoarekin harreman, tira, konplikatu daukan abizen batez gain, elbarritasun arin bat ere badaukana. Baldintza horrek lehentasuna emango lioke zenbait lan lortzeko, baina esplikatu duenez, bere hiriko ospitalean atera zen postu batera aurkeztu zenean, honakoa erantzun zioten: “Zergatik ez diozu zure senideari laguntza eskatzen?”.

Kasu isolatua izango zela pentsatu zuen, baina keba. Azken hilabeteetan bost lan-elkarrizketa izan dituela dio eta guztietan atera dela abizenaren kontua. “Zer egin behar dut? Gerente batekin hitz egiten dudak bakoitzean, nire dokumentazioa irekitzen du eta segituan galdetzen dit pertsona horren senidea ote naizen”. Volodimir Zelenski Ukrainako presidentea da “pertsona hori”, noski.

Desesperatuta dago Sergei. Normala. Bizitzen ari den egoera salatzeke hiru



Sergei Zelenski elektrikaria
eta Volodimir Zelenski
Ukrainako presidentea.

eguneko gose-greba hasi du eta bere eskualdeko gobernadoreari gutuna idatzi dio, zer egoeratan aurkitzen den esplikatu nahian. Inguruko egunkarietara ere bidali du gutun hori. Eta eskura eman nahi izan zion gobernadoreari berari, baina horretarako haren egoitzara joan zenean, atariko seguratak galdetu zion: “Zu al zara drogazale ukrainararen abizen bera daukana?”. Volodimir Zelenski da “drogazale ukrainarra”, noski –seguratarentzat, esan nahi dut-.

Egoerak ez du konponbide errazik, nik uste. Imajina dezagun momentu batez: Ukrainako presidenteari norbaitek saltsa honen berri ematen dio eta, Azoveko naziekin daukan elkarrizketa super-interesgarrietako bat eteten du, komunikatu ofizial bat idazteko esanez berak ez daukala zerikusirik No-

vosibirsk-en bizi den Sergeirekin. Uste duzue horrek lagunduko liokeela gure elektrikari elbarriari lana aurkitzen? Kontua dagoen bezala, niri sinesgarriagoa egiten zait pentsatzea bizilagunak ere hasiko liratekeela pentsatzen Zelenski ukrainarra eta Zelenski novosibirsktarra erdi-lehengusuak edo izango direla, bestela ez dela entenditzen horrelako faboreak egitea.

Historia honetatik lezio garrantzitsu bat atera dezakegula uste dut: gerrak beti egiten direla jende arruntaren izorramendurako. Eta izorramendu hori ze formatan etorriko den aurreikustea kontu nahiko konplikatu dela, norberaren ezaugarri txiki, hutsal eta ergelena ere baliagarria izan daitekeelako momentu jakin batean ederki izorratuta bukatzeko. Animo Sergei. ●

ZIBURUKO 3.EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

EKAINAREN 4AN
LARUNBATAREKIN
PILOTA PLAZAN



ANTOLATZAILEAK



PARTAIDEAK



BABESLEAK



JORGE
Oteiza

EDUARDO
Chillida



DIALOGOA

50EKO ETA 60KO URTEETAN

2022.04.09
2022.10.02

Erakusketa
San Telmo Museoa
Zuloaga pza. 1 20003 Donostia / San Sebastián
www.santelmomuseoa.eus

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



Erakunde babesleak:



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lehenetako Hezkuntza
eta Arloko Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN

Patrona pribatuak:



EL DIARIO VASCO



kutxa
FUNDATIA